

“Zein (...) bait- / -n” erlatiboa: Literatura-Tradizioa

XABIER ALBERDI LARIZGOITIA *
JULIO GARCÍA GARCÍA DE LOS SALMONES *

0. SARRERA

Gaur egun, euskaraz eskolatua edo euskal gramatikaz jantzia den edonork badaki erlatibozko egitura hau (“zein ... bait-/ -n”) ez dela atzo goizeko berrikeria. Dena den, jakina denez, oraintsu arte egitura honek nahiko ospe txarra izan du gramatikari eta idazleen artean eta oraindik ere ez dira gutxi egitura hau errezeloz ikusi eta baliabide badaezpadakotzat edo saihestu beharrekotzat jotzen dutenak.

(Aurre)Iritziak (aurre)iritzi, ezin uka daiteke mendeetan barrena erlatibo honek tradizio zabala izan duela Iparraldeko zein Hegoaldeko euskal testuetan. Horregatik uste dugu egitura honek azterketa zehatzagoa behar duela; are gehiago, kontuan hartzen bada baliabide hau testu tekniko askotan eta itzulpengintzan oro har giltza izan daitekeela erdara batzuetako “periodo” luzeak egokitzen larregi barik emateko eta bestelako zailtasun sintaktikoak gainditzeko.

Egitura honen alde gaude, beraz; hobeto esan, baliabide honi, neurritz eta tentuz, etekina ateratzearen alde. Baina, jakina, horrek ez du esan nahi aurretiz egitura hau albo-erdaretako erlatiboen ordain bakartzat erabili behar dugunik edo bestelako euskal bideak bazter utzi behar ditugunik, ezta erdaretako erlatiboei beti eta nahitaez euskal erlatibo bat egokitu behar diegunik (erlatiboen inguruko transposizioez, besteak beste, ik. Biguri, 1994). Eta baliabide bat zuzentasunez eta egokitasunez erabiltzeko, ezagutu egin behar da lehenik.

* EHuko irakasleak

¹ Lan hau egiteko, funtsean, *Orotariko Euskal Hiztegiaren* “corpusaz” baliatu gara. Izugarri handia den “corpus” horretatik adibidetegi aski zabala -mila esalditik gora dituen adibidetegia- aukeratu genuen, garai eta euskalki guztietako idazleak sarturik. “Corpusa” aukeratzeko eta osatzeko lan honetan Jesus Mari Makazaga lankidea izan dugu gidari eta aholkulari; horregatik, aurrera baino lehen, geure esker ona agertu nahi diogu, lan hau ezi-nezkoa izango baitzen bere laguntzarik gabe.

Horixe da, hain zuzen, lan honen helburu nagusia: euskal egitura hau hobeto ezagutzea. Artikulua, erlatibo “klasiko” honen inguruko zenbait auzi eta gorabehera argitzera dator: 1) hizkuntza idatzian izan duen oihartzuna eta bilakaera; 2) “zein” izenordain erlatiboaren deklinabidea; 3) egitura honetan adizkiari dagokion menderagailua; 4) erlatibo-perpausari dagozkion osagaien ordena, hala nola, erlatibo-perpausak perpaus nagusian hartzen duen gunea; 5) “zein” erlatiboaren eta bere aurrekariaren arteko distantzia eta hurrenkera-arazoak; 6) egitura hau erlatibo ez-murritzalea bakarrik adierazteko erabil daitekeen ala ez-murritzalea nahiz murritzalea; 7) puntuazio-zeinuak; 8) egitura honek gaurko euskaran izan dezakeen tokia.

1. LITERATURA-TRADIZIOA

Atal honetan erlatibo “klasiko” deiturikoak hizkuntza idatzian izan duen oihartzunaz eta bilakaeraz zenbait xehetasun ematera mugatuko gara.

Erlatibo honen alde eta aurka mintzatu direnek, batekoek nahiz beste-koek, onerako nahiz txarrerako, zuzperrarazteko nahiz isilarazteko, denek aipatu digute idazle zaharren lekukotasuna. Aldekoek, batik bat, egitura honek idazle “zahar” edo “klasikoen” artean izan zuen oihartzun zabala azpimarratu dute; eta informazio horren arabera, filologia-kontuetan aditua ez denak, beharbada, pentsa lezake egitura hori lapurterazko literatura klasikoaren garaiko baliabide zaharritua dela, arkaismoa alegia. Baina beherago frogatu-ko denez, azken uste hori neurri handi batean okerra da.

Beheko taulan erlatibo honetaz baliatu izan diren idazleen zerrenda kronologikoa² eskaintzen da. Bertan ikus daitekeenez, “zein bait-/n” hau ez da idazle “zahar” gutxi batzuen ohitura bakartua, hizkuntza idatzian hedatuz eta mamituz joan den egitura ongi sustraitua baizik.

(1) “ZEIN BAIT-/N” ERLATIBOAREN LITERATURA-TRADIZIOA

XVI. MENDEA

Leizarraga [L-BN] (*ABC* 1571, *Ins* 1571)

XVII. MENDEA

Materre [L] (*Doctrina...* 1617);
Volt [Z?] (?1620)
 Etcheberri (Ziburukoa) [L] (*Man* 1627, *Noel* 1697);
 Axular [L] (*Guero* 1643);
 Oihenart [L-BN?] (*Po* 1657, *Pr* 1657);
 Pouvreau [L] (*Phil* 1664, *Imit* 1660);
 Argaignarats [L] (*DevB* 1665);
INav [L] (1677);
 Gasteluçar [L] (*Eguia...* 1686)
 Mong [] (*Laborarien Abisua* 1692);
 Belapeyre [Z] (*Catechima* 1696);

² Jakina, zerrenda hau gure *corpus* eta datu mugatuen emaitza mugatua da, osa daitekeen eta osatu beharreko zerbait, alegia. *Orotariko Euskal Hiztegi*an jaso gabe geratu diren beste testu batzuetan ere badira egitura honen adibideak (adibidez, ik. Knörr 1983).

Idazlanak aipatzeko *Orotariko Euskal Hiztegi*ako laburdurez baliatu gara; kako artean [] euskalkia ematen da hurrengo laburduren arabera: B=bizkaiera, G=gipuzkera, GN=goi-nafarrera, IGN=Iparraldeko goi-nafarrera, HGN=Hegoaldeko goi-nafarrera, L=lapurtera, BN= behe-nafarrera, MBN=Mendebaldeko behe-nafarrera, EBN=Ekialdeko behe-nafarrera, Z=zuberera, Aezk.=aezkera, Zar=zaraitzuera, Er=erronkaria.

XVIII. MENDEA³

Etcheberri (Sarakoa) [L] (*Eskuararen Hatsapenak* 1712);
 Chourio [L] (*Jesu-Christoren Imitacionea* 1720);
 Monho [L] (*Poèmes...* 1749-1821);
 Haraneder [L] (*Gudu...* 1750);
 GavS [G] (1762);
 Larreguy [L] (*Testament...* 1775-1777);
 Mercy [Z?] (*Andere Dona Maria...* ?1780);
 Baratciart [L] (*Guiristinoqui...* 1784);
 Lizarraga [HGN] (*Pro* 1786).

XIX. MENDEA

Xarlem [Z] (1800);
 J.A. Moguel [B; G] (*CO* 1803, *PAb* 1802; *CC* 1800);
 Añibarro [B] (*LoraS* 1803, *EL1* 1802, *EL2* 1821, *CatAN* 1802);
 V. Moguel [G] (*Ipui onac* 1804);
 Duhalde [L] (*Meditacioneac* 1809);
 Astarloa [B] (*Berbaldiak* 1816-1818);
 Bartolome [B] (*Olg* 1816, *Ic1* 1816, *Ic2* 1817, *Ic3* 1819);
 J.J. Moguel [B] (*BasEsc* 1816);
CatB [Baztan: IGN/L?] (1826?);
CatLlo [B] (1828);
JesBih [L] (1831);
CatLuz [Luzaide] (1833);
Orbarako Dotrinak [Aezk.] (Camino, 1991);
UskLiB [Z] (?1837);
Marll [L] (1838);
 Jaureteche [L] (*Meditazioneac* 1840);
 Iturriaga [G] (*Fab* 1842);
 Iztueta [G] (*C* 1847);
 Uriarte [B] (*Marll* 1850);
 Goyhenetche [L] (*Fableac...* 1852);
 Hiribarren [L] (*Esk* 1853, *Egia* 1858);
 Lardizabal [G] (*Testamentu...* 1855);
 Duvoisin [L] (*LEd* 1856, *Lab* 1858, *Dial* 1857);
ECocin [L?] (1864);
CatAe [Aezk.] (1869);
CatR [Er] (1869);
CatS [Z] (1872);
 Legaz [GN] (*Cristauaren Icasbidea...* 1880);
 Beovide [G] (*AsL* 1885);
 Elissamburu [L] (*Po, PAd* 1888);
 Olachea [B] (*Doctrina cristiane* 1763);
 Arbelbide [BN] (*Igand* 1895);
 E.M^a.Azkue [B] (*PB* 1896);
 Iturzaeta [B] (*Azald* 1899);
 B. Echenique [Baztan: IGN/L] (Bibliaren itzulpen-zatiak, XIX);
 J. Hiriart-Urruti [BN] (*Aurp* 1892-1912)

³ Hemen aipatutakoei, besteak beste, Lavieuvilleren *Bayonaco Diocesaco Bigarren Catichima* [L] (Baiona, 1733) gaineratu beharra dago (Villasante, 1985:974); bertan autoreak menderakuntza-sistema aberatsa eraikitzen du anaforikoetan oinarrituta.

XX. MENDEA

Arrese Beitia [B] (AmaE 1900);
 Aresti [batua?] (*MaldanB* 1960);
 Ibiñagabeitia [] (*Virgil* 1966);
 T. Etxebarria [B] (*Ibilt* 1967);
 Lasa [batua?] (*Poema Bilduma* 1971);
 Azurmendi [batua?] (*HitzB* 1971);
 J. Mirande (*Po*, 1976; *Pr* 1976)

Dena den, zerrendan ageri diren idazleen artean azpimarra ditzagun erlatibo berezi hau halako maiztasun batez erabili dutenak, denak ez baitira neurri berean baliatu aipatutako egituraz; hona hemen, haietariko batzuk: Leizarraga⁴ (XVI, L-BN), Materre (XVII, L), Axular (XVII, L), Pouvreau (XVII, L), Etcheberri Sarakoa (XVIII, L), Larreguy (XVIII, L), Baratciart (XVIII, L), J.A. Moguel (XIX, B), Añibarro (XIX, B), Duhalde (XIX, L), Astarloa (XIX, B), Bartolome (XIX, B), J.J. Moguel (XIX, B), *CatLlo* (XIX, B), *JesBib* (XIX, L), *CatLuz* (XIX, Luzaide), *MarIL* (XIX, L), Jaureche (XIX, L), Iztueta (XIX, G), Hiribarren (XIX, L), Lardizabal (XIX, G), Duvoisin (XIX, L), Legaz (XIX, GN), Elissamburu (XIX, L), Arbelbide (XIX, BN), Iturzaeta (XIX, B).

Ikus daitekeenez, formula hau, gehiago edo gutxiago, literatura-tradizioidun euskalki nagusietan agertzen zaigu, hots, lapurteraz, zubereraz, gipuzkeraz eta bizkaieraz. Are gehiago, halako tradizio literariorik izan ez duten eguzki aldeko euskalki batzuetan ere badago, adibidez: Hegoaldeko goinafarreraz (Lizarraga Elkanokoa), Baztango literatura-hizkuntzan (B. Etchenique, *CatB*, Legaz), aezkeraz (*CatAe*, *Orbarako dotrinak*) eta zer esanik ez, baita behenafarreraz ere (*CatLuz*, Arbelbide)⁵ Aurrera baino lehen, gauza bat argitu nahi genuke, badaezpada ere: orain artekoak hizkuntza idatzirako baik ez du balio; hortaz, esandakotik ezin da ondoriorik atera aipaturiko euskaren ahozko errealitateari buruz⁶.

Erlatibo berezi honen aztarnak euskara guztietan agertzen zaizkigun arren, bistan da baliabidearen benetako garapena Ekialdeko euskalkietan gauzatu zela lehendabizi, handik gainerako euskalkietara zabalduz geroago. Agerpen dialektalen kronologia ikusita (ik. goiko taula), badirudi egitura hau itxuraldatuta (Ek. *bait*:- Mendeb. -*n*) Ekialdetik Mendebaldera joan dela zabaltzen (XIX. mendean bereziki); hobeto esan, *zein* forma ez ezik, berau erabiltzeko beharra ere zabaltzen da Mendebaldeko euskalkietara. Dena den, esandakoa egia izanik ere, sakoneko bilakaera historikoa ezkuta dezakeen axaleko ikuspegia besterik ez dateke⁷.

⁴ Etxeparek ez bide du egitura hau erabiltzen, beharbada bere lana hitz lauakoa barik hitz neurtuzkoa izan zelako; dena den, balio anaforikodun beste galdetzaile batzuen adibideak ez dira falta haren idazlanetan: “nori bait-”, “zeren (...) bait-”, “nola ere (...) bait-”...

⁵ Gure *corpusean* agertu ez arren, pentsatzeko da Sortaldeko gainerako euskalkietan ere (zaraitzueraz eta erronkarieraz) badirela esaldi-mota honen lekukotasunak.

⁶ Elizondoko euskaraz ari dela Salaburuk (1980:14-15) dioenez: “Moeta honetako esaldiak, literatura-mailan klasikoak izanik, Elizondoko euskara mintzatuan ez ditut behin ere entzun (...) esan nahi dena beste hau da, hemen ikusten den euskara Elizondoko euskara izanik, Elizondoko euskara *literariotzat* jo behar dugula...”

⁷ Izan ere, “zein + bait-” egitura beste egitura zabalago baten (“balio anaforikodun galdegilea + bait-”, adib.: *non*, *nori*, *zeren*, *nola ere...* + *bait*-) kasu partikularra besterik ez

Bilakaera historikoa arakatuz gero, honako joera hau ageri da: erlatibo honetaz baliatzen diren idazleen kopurua goraka doa mendeak aurrera joan ahala (XVI-XIX), harik eta XX. mendean aurrekoan —idazle-kopuruz, zabalera dialektalez eta maiztasunez— bere “gailurrera” iritsitako tradizio hori eteten den arte. Hots, haustura ia erabatekoa eta bat-batekoa gertatzen da mende batetik bestera egitura honen erabilerari dagokionez; izan ere, XX. mendean idazle gutxik erabiltzen dute erlatibo hau eta, salbuespenak salbuespen, erabili ere bakanka baizik ez dute egiten⁸. Are gehiago, itxura denez kasu honetan, beste batzuetan ez bezala, etena orokorra izan zen, esan nahi baita haustura mugaz bestaldeko literaturara ere zabaldu zela⁹.

Beste batzuetan bezalatsu, oraingoan ere gramatikarien jarrera garbizaleari, edo hobeto esan, aranatarren ondoko garbizaletasun sintaktikoari¹⁰ egotzi behar zaio hauste horren “erantzukizuna” (Villasante, 1979:87-88). Euskara hizkuntza pospositiboa izanik, sintaxiarekiko ikuspegi garbizale batetik ezin zuten begi onez ikusi mendeko perpausaren hasieran menderagailuak erabiltzea, joera berri horrek euskara hizkuntza erromanikoen moldeetara makurtzea baitakar eta azken batean euskararen jatortasun eta berezitasun sintaktikoa bera lardaskatzea. Iritzi hauen eragina berehalaxe sumatu zen alde bietako literaturan, “zein bait-” egitura ia-ia guztiz desagertarazteraino (OEH, III:703).

Esan bezala, haustura orokorra izan zen, baina Iparraldean joera garbizaleak ondorio bereziak izan zituen. Itxura denez, “zein (...) bait- (...)” egitura “kutsatuaren” ordeztu, “bait-” soila —izenordain anaforikorik gabe— ugaltu zen garbitasunaren onerako eta zehaztasunaren kalterako (Villasante, 1985); izan ere, Iparraldeko usadioan “bait-” menderagailu soilaz eratutako perpausak anbiguotasun-maila handikoak eta balio anitzekoak (kausalak, erlatiboetakoak, konpletiboak, moduzkoak...) gertatzen dira (ik. OEH, III: “bait” sarreraren hirugarren adiera, 708-709; Villasante, 1979:212-223). Villasanteren iritziz, izenordain anaforikoen “inausketa” neurri handi batean atzera-pausoa izan zen, anaforikoen laguntzarik gabe mendeko perpausen *ñabardurak* eta balioak lausotuta geratzen direlako eta azken batean idazleek¹¹ zorroztu, zehaztu eta doitutako tresna kamustea, zehazgabetzea eta po-

da; egitura hauek Ekialdeko euskalkietan garatu baziren ere, badituzte halako aurrekari batzuk XVI. mendeko bizkaieran eta gipuzkeran: “zelan... bai(st)-” (RS), “non... bait-” (*Cantar de Breña*). Hortaz, beste hau izan daiteke hipotesi sinesgarriago eta zehatzagoa (OEH, III: 703, s.v. *bait*): antzina batean “balio anaforikodun galdegilea + bait-” egitura orokorra izango zen; eta geroago, Mendebaldeko euskalkietan “bait-” horren galera ia erabatekoa gertatu zen bitartean, Ekialdeko euskalkietan ikaragarri ugaltu ziren “bait-” partikularen zereginak eta beraren inguruko egiturak.

⁸ Gure *corpusean* zazpi idazle azaltzen zaizkigu, egitura honen adibide banarekin.

⁹ Villasantek garai batean (1979:88) besterik uste zuen arren “(...) En el lado vasco-francés, donde la tradición ha tenido fuerza suficiente para resistir a estos embates, no se ha producido un corte tan absoluto.”, geroago egindako beste ikerketa batean (Villasante, 1985) bestelako ondorioetara iritsi zen: hots, anaforikoen tradizioa Hegoaldean ez ezik, Iparraldean ere eten zen XX. mendean. Gure datuek, orobat, OEHko emaitzen ildotik, haustura berberori baieztatu digute.

¹⁰ Jarrera-aldaketa XX. mendearekin batera dator. Horrela, Campionek XIX. mendearen azken aldera (Campion, 1884, II:768) ez du inolako eragozpenik erabilera hau iruzkinik bat ere egin gabe jasotzeko.

¹¹ Herri-euskaratik abiatuta seguraski. Hona hemen, Villasanteren hitz adierazgarriak: “Mari Tere Echeniqueren liburua aurkeztatu zenean, Aita Patxi Altunak halako haridura ba-

bretzea izan zelako, hitz batez, idazleen eskutik egindako bidea desagitea edo alferrik galtzea.

Laburki bada ere, gogora ditzagun mende honetako gramatikari garrantzitsuenen jarrerak. Jakina denez, XX. mendearen hasiera-hasieran (1905-1906) bada mugarri historikotzat jo daitekeen hiztegi bat (Michelena, 1966:18), ordura arteko literatura eta aurreragokoa bereizteko giltza izan daitekeena, Azkueren hiztegia (*DVEF*), hain zuzen ere. Hiztegi horretan (*DVEF*, II:61, 426), bada, Azkuek gogor salatzen du erabilera hori, jatorri latindarreko “barbarismotzat” joaz; zenbait urte geroago (1925) gaitzespeneko antzeko iritzia edo are gogorragoa azaldu zuen (*MV*, I:§529-530). Altubek berak, mugaz honaindiko idazleengan batez ere hain eragin handia izan zuen *Erderismos* liburuan (Altube, 1929:137-142) ez zituen begi onez ikusten halako egiturak¹² (“...pero vertiéndolas demasiado literalmente”). Erlatibo klasiko edo erromanikoaren kontrako iritzi hori mugaz bestaldera zabaldu zen eta, esate baterako, Iparraldean hainbesteko pisua izan zuen Lafitte gramatikariak antzeko iritzia azaldu zuen; zalantzarik gabe gaitzesten ditu galdegile anaforikoaz hornitutako erlatiboak¹³: “Nous n’hésitons pas à con-

tekin galdetzen zuen anaforikoen enplegua nola izan daitekeen idazleen asmazioa, jakinik, alde batetik, Dextepare batek erabilpen hau ezagutzen duela, eta, bestetik, idazle honen hizkera guztiz herrikoia dela. (...) Begien bistan da herri-euskaran bertan aurkitzen dugula, eta oso aspaldidanik, enplegu hori. Herrian aurkitu zutena gero idazleek aintzintatu, bultzatu, zehaztu, biribildu eta mugatu egin zuten. Herritik jasotako zerbait, alegia, biribildu eta osatu egin zuten, beren premiei erantzuteko behar zen mailan.” (Villasante, 1985:973).

Bestalde, oraintsu argitara emandako XVI. mendeko (1598) lapurterazko gutun batzuetan (Floristán, 1993; Sarrústegui, 1993) sarritan agertzen zaigu erlatibo klasikoaren lekukotasuna. Datu hau, testu-mota (zelatarien espioitza-gutunak) kontuan harturik, nahiko adierazgarri eta azpimarragarria iruditzen zaigu, gutun horiek estilo zuzenaren eta hizkera biziaren erakusgarritzat jo daitezkeelako. Gure ustez, datu hau, aztergai dugun egituraren herrikoitasuna azpimarratza dator. Hona hemen, adibide batzuk:

- (...) Esan dit/ estela deusik alacorik; Amians artu dela asegourutzat/ badouquela. Gobernadore gaur, zoin baita igandea, ouste doue Bayonara./ Deus berryric baldin badaquy, jaquingo dougou/ eta nere eginbidearen egitera ezta faltarik izango (...) (VII, 5).
- (...) Egoun, zoin baita igandea,/ gonbidatou ditout sey ingles, berriric neon denean/ lasterenic sentizen douenetic. (...) (X, 6).
- Jauna: egoun, zoin baita oste egouna, etorri da/ gizon bat nere semearequy minzazera, non esan baitou egoun douela ogeie eta irou egoun Amianstic/ partitou dela. (...) (XI, 1).
- Jauna: bart, zoin baiquendouen aste/ artea, gobernadoreac gastigatou dio/ nere semeary digoala ara: (...) (XII, 1).
- Jauna: egoun goyzean, zoin baita astehartea, ereceby-/rou dout zeure senoriaren carta conserbequin batean. (...) (XVI, 1).
- (...) Jaun emen izatu dena da legat bat, zoinna etorri baita elicec Eregeri eman behar dioten dirouaren erecobrazera. (...) [El señor que ha estado aquí es un legado que ha venido a recaudar el dinero que las iglesias tienen que dar al Rey] (XVII, 4).
- Jauna: oray puntuan erezebitu dut presenta-/requin aurquituco duen carta hory, zoinna baita ene cousin capitene Meriteinnec bidalduea./ (...) (XIX, 2).
- Jauna: bart etorry ninzan anaga baten/ echetic, non aurqitou baitout zure senoriaren/ coutoun bat echean. (...) (III, 2).

¹² Eta irtenbide aski mugatua eskaintzen du gainera, ahozkorako baizik balio ez duen irtenbidea (“*Zein ugezabarentzat lan egiten dedan?* Ba ugezaba orixe”, “*Zein laguneri limosna eman oi-diodan?* lagun ura”, “*Zein etxetatik irten zeran?* etxe ura”...).

¹³ Hala eta guztiz ere, gogoz kontra bada ere, onartu beharrean aurkitzen da hurrengo-en modukoak: kausalak (§776, “nola ... bait-”; “zeren ... bait-”); “nork ere... bait-...”, hura... (§777) tankerakoak; eta “bait-” menderagailuaz eratutako erlatibo-balioko esaldi bereziak (§772).

damner ce charabia [*zoinak bait-, non bait-*]” (Lafitte, 1944:\$775)¹⁴. Iparraldean, ordea, denak ez dira erlatibo honen kontra mintzo; hor daude Schuchardten lana (1923:\$85), Lhanderen hiztegia (1926) eta Gavelen gramatika (1929, I:\$97), tradizioko erlatibo-mota hau aurreiritzirik gabe jasotzen dutenak. Bistan denez, alde eta kontrako iritzia badaude ere, ondorioei begira aipatu gramatika-lanak ez dira kidekoak, zabalkunde eta eraginaren aldetik ez baita Azkueren *DVEF* erraldoiarekin pareka daitekeenik.

Azpmarragarria da, gainera, literatura-tradizioaren eta gramatikarien tradizioaren arteko bat-etortzea: hots, XX. mendera arte erlatibo hau biziki erabiltzen da hizkuntza idatzian eta euskalariak (Etcheberri Sarakoa, 1712; Larramendi, 1729; Inchauspe, 1858; Gèze, 1873; Ithurry, 1895) aparteko iruzkin kritikorik gabe jasotzen dute beren gramatiketan (ik. Oyharçabal 1987:299-301); XX. mendean ere, batzuk eta besteak elkarri bizkarra eman gabe aritzen dira oro har eta itxura guztien arabera tradizio idatziko etena, gramatikarien gaitzespenak eragindakoa izan daiteke.

Honen argira, esan daiteke, ondorio modura, “Zein (...) bait-” egiturak sustrai sakonak dituela literatura-tradizioan (XVI-XIX): historikoki lehenik Sortaldeko euskalkietan garatu bazen ere, geroago Sartaldeko literaturara hedatzean literaturadun euskalki nagusietan sustraitu zen. Hala ere, tradizio horrekiko haustura XX. mendean —hasieran— gertatu zen eta orokorra izan zen: hots, etena Hegoaldeko eta Iparraldeko literaturan gertatu zen. Gure ustez, haustura hori XX.eko gramatikarien gaitzespenezko jarreraren eraginez gertatu zen eta bereziki Azkueren *DVEF* hiztegiko kritiken eraginez.

2 “ZEIN” IZENORDAIN ERLATIBOAREN DEKLINABIDEA

2.1. Deklinabidea literatura-tradizioan

Lehenengo eta behin, esan beharra dago puntu honetan ez dagoela batasunik literatura-tradizioan. Izenordain erlatibo hauek semantikaren aldetik mugatuak diren arren, hau da, erreferente jakina duten arren, morfologiaren aldetik, oro har, hiru eredu ditugu, aro eta euskalkiaren arabera banatuak. Lehenik, XVI eta XVII. mendeetan “deklinabide” mugagabea erabiltzen zuten gure idazle zaharrek (Leizarraga, Materre, Axular, Oihenart...). Hona hemen, adibide gisa, garai horretako paradigmaren zati bat:

(2)	<u>MUGAGABEA</u>
(ABSOLUTIBOA)	ZEIN (sing.= pl.)
(ERGATIBOA)	ZEINEK “
(DATIBOA)	ZEINI “
(GENITIBOA)	ZEINEN “
(INSTRUMENTALA)	ZEINEZ (Lç)/ ZEINETZAZ (Ax, Mat)/
(INESIBOA)	ZEINETAN “
(ABLATIBOA)	ZEINETARIK “

¹⁴ R. Lafon bera ere (1966:221-222) Lafitteren jarraitzailea da auzi honetan. Hona hemen bere iruzkina: “Lafitte qualifie avec raison “charabia” ce genre de phrase, car il s’agit de constructions calquées permettant d’imiter servilement les phrases françaises ou espagnoles ou gasconnes à relatif et substantif antécédent”.

Ageri denez, garai honetan “zein” hitzak sail mugagabeko kasu-atzizkiak hartzen ditu beti, galdegilearen eta izenordainaren artean bereizketa formalik egin gabe¹⁵. Hortaz, “zein” erlatiboaren aurrekaria singularra izan edo plurala izan, forma mugagabea nagusitzen da numeroko komunztadurari kasurik egin gabe¹⁶; adibidez:

(3)

(3a) ZEIN = NOR SING.

(..) aita, zein baita gauza guzien lehen fundamenta eta kausa (...) (Lç)

(3a') ZEIN = NOR PL.

(...) liburu hauk diszerni eta berhez eraziten baitrauzkigu berze liburu eklesiastikoetarik, ZEIN probetxable izanagatik, ezpaitirade ordea halako non (...) (Lç)

(3b) ZEINEK = NORK SING.

(...) eta irakin hartarik ilkitzen da khe bat, lanbo bat, zeinek, poetak dioen bezala, itsutzen baitu adimendua (...). (Ax)

(3b') ZEINEK = NORK PL.

(...) ezterauet emaiten berehala, zeren ezpaitira oraiño bethe eta konplitu amorreoen bekhatuak, zeinek baitadukate herri hura (Ax)

(3c) ZEINETZAZ = ZEREZ SING.

(...) bekatu hura zeinetzaz kutsaturik sortzen baikara Adam gure lehenbiziko aitaren bekatua dela kausa (...) (Mat)

(3c') ZEINETZAZ = ZEREZ PL.

(...) halatan egin ditut halakoentzat euskaraz debozinozko othoitz eta orazino batzuk, goizetan, arratsetan, eta bertze anhitz denboratan eta okasinotan egin eta erran ahal ditezkeienak, ZEINETZAZ egiten baitut hirugarren partea (...) (Mat)

Mugagabearen aldeko joera orokor honek XVII. mendean bertan badi-tu zenbait salbuespen, hala ere. Leizarragak, esaterako, “zeinagatik (sing.)/zeinakgatik (pl.)” bereizketa ezartzen du eta Etcheberri Ziburukoa “zeña (sing.)/zein (pl.)” bikoteaz baliatzen da. Baina XVII. mendean, zalantza, nahaspila eta gorabehera askorekin bada ere, S. Pouvreau da deklinabide mugatuaren aitzindari nagusia¹⁷. XVII. mendearen bigarren zatian deklinabide mugatuaren ildotik doazen ale solte batzuk agertzen dira: *zeina* (Arg), *zeñaril/zeinei* (INav), *zeinaren* (Mong)...

¹⁵ Izenordain erlatiboan numero-komunztadurarik egiten ez bada ere, ohar gaitzen adizkiak numero-komunztadura gordetzen duela aitzindariarekin.

¹⁶ Ez da gauza bera gertatzen aditzean ordea; izan ere, izenordaina “kasu gramatikal” deituetariko batez (*zein*, *zeinek*, *zeini*) hornituta badago, singular/plural bereizketa aditzaren bidez egiten da: *zein baita/zein baitira*; *zeinek itsutzen baitu/zeinek baitadukate*...

¹⁷ Pouvreauren idazlanetan sistema zaharra (mugagabea) eta berria (mugatua), biak aurkitzen dira nahastekatuta. Hona hemen, bere paradigma irristakorrak:

	MUGAGABEA	MUGATUA (sing./pl.)
ABSOLUTIBOA:	zein (sing./pl.)	zeina / zeinak
DATIBOA:	zeini (sing./pl.)	
ERGATIBOA:	zeinek (sing./pl.)	zeinak / zeinek
GENITIBOA:		zeinaren / zeinen
SOZIATIBOA:		zeinarekin / zeinekin
INESIBOA:	zeinetan (sing./pl.)	zeintan / zeinetan
ADLATIBOA:		zeintara / zeinetara
ABLATIBOA:	zeinetarik (sing./pl.)	zeintarik / zeinetarik
INSTRUMENTALA:	zeinetaz (sing./pl.)	zeintaz / zeinetaz

XVIII. mendean Etcheberri Sarakoa da sistema berria finkatzen duena eta harrezkero XVIII. eta XIX. mendeetan¹⁸ “zein” izenordain erlatiboaren deklinabide mugatua gailentzen da lapurterazko literatura klasikoan¹⁹. “Singularra/plurala” bereizketa bilatzen da, honelakoxe paradigmen bidez:

(4)

	<u>MUGATUA (sing./pl.)</u>	
(ABSOLUTIBOA)	ZEINA	/ ZEINAK
(ERGATIBOA)	ZEINAK	/ ZEINEK
(DATIBOA)	ZEINARI	/ ZEINEI
(GENITIBOA)	ZEINAREN	/ ZEINEN
(SOZIATIBOA)	ZEINAREKIN	/ ZEINEKIN
(DESTINATIBOA)	ZEINARENTZAT / ZEINENTZAT	

	<u>MUGAGABEA (Sing.= pl.)</u>
(INESIBOA)	ZEIN(E)TAN
(ABLATIBOA)	ZEIN(E)TARIK
(ADLATIBOA)	ZEIN(E)TARAT
(LEKU GENITIBOA)	ZEIN(E)TAKO

Ikus daitekeenez, “zein” erlatiboak Iparraldeko literaturan sail mugatuko kasu-atzizkiak hartzen ditu XVIII. mendetik aurrera (Etcheberri Sarakoa, Monho, Haraneder, Larreguy, Baratciart, Duhalde, *JesBih*, *MarIl*, Jauretche, Hiribarren, Duvoisin, *ECocin*, Elissamburu, Arbelbide [BN]...). Dena den, joera orokor hori ez da hedatzen kasu-marka guztietara; izan ere, goiko paradigmaman markatu denez, leku-denborazko kasuetan (*zertan*, *zertatik*, *zertara*...) ²⁰ deklinabide mugagabeari eusten diote idazle lapurtarrek²¹. Hots, ez gure *corpusean*, ezta *Orotariko Euskal Hiztegiarenean* ez da ageri “zeinean, zeinera, zeinetik, zeineko...” tankerakorik. Horrela, oro har, “zeina/zeinak, zeinak/zeinek, zeinaren/zeinen...” oposizioa gordetzen duten idazlanetan honelakoak aurkituko ditugu:

(5)

(5a) (*MarIl*). ZEINTAN = ZERTAN SING.

-(...) ez da lengoaja bat ZEINTAN xingleago eta naturalago ezar baititeke nola gurean (...)

¹⁸ Ithurryk (1895:20), esaterako, deklinabide mugatuaren aukera egiten du (“Ce pronom [relatif], soit au singulier, soit au pluriel, se décline sur la déclinaison définie des noms communs”) Leizarraga eta Axularren bidea baztertuz.

¹⁹ Azpimarragarria da, hala ere, tradizio horretatik kanpo dabilzan Ekialdeko idazlanetan mugagabeari eusten diotela. Hala gertatzen da, adibidez, hurrengoetan: Lizarraga Elkanokoa (*zeñen*, *zeintako*, *zeintan*), *CatB* (*zein*), *CatLuz* (*zein*, *zeini*), *CatAe* (*zeini*, *zeineki*), Legaz (*zein*).

²⁰ Jakina denez, hemen aztertu ez dugun arren, “non, nora, nondik...” galdegileak ere erabil daitezke erlatibo gisa leku-denborazko kasuak adierazteko: *joan zen Donapaleura*, *non baitzen orduan Nafarroako parlamentua*.

²¹ Instrumentalarekin ere gorabeherak daude: idazle batzuek (Jauretche) deklinabide mugatua (*zeinaz/zeinez*) erabiltzen dute eta beste batzuek (Baratciart, *MarIl*), aldiz, mugagabea (*zeinetaz*).

(5a') (*MarIl*). ZEINTAN = ZERTAN PL.

-(...) bainan aihortzen dut, urthe bat baino gutiagoz, konbertsione gehiago egin izan zela ene herrian, ezen ez, aintzineko hogoi eta hamar urthetan, ZEINTAN ez bainuen pederikatzen ahal bezen pederiku eder eta aphaindurik baizen (...)

(5b) Duhalde: ZEINETARAT = ZERTARAT SING.

-(...) hortik ere liburu sakratuak mintzo zaiku seinduen zorion hartaz, bazkari batez bezala, ZEINETARAT gonbidatuak direnek (...); eztei batzuz bezala, ZEINETAN sentsu bakhortxa dagokon atseginaz gaindi baitago (...)

(5b') Duhalde: ZEINETARAT = ZERTARAT PL.

-(...) horra bi mugak, ZEINETARAT baitaramate mundu huntan atxikitzen diren bi bidek; (...)

(5c) Jaureche: ZEINTARIK = ZERTATIK SING.

-(...) gauza gutia daiteke, bainan gauza guti harrek ereman gaitzazke handiago batetara, ZEINTARIK baidoha (...)

(5c') Jaureche: ZEINTARIK = ZERTATIK PL.

-(...) eta kontsidera ditzagun haren zauri sakratuak ithurri abundant batzu bezala, ZEINTARIK atherako baitire (...)

Geroago, XIX. mendean, hirugarren eredu sortu zen Mendebaldeko literaturadun euskalkietan, hau da, bizkaieraz (J. A. Moguel, Añibarro, Vicenta Moguel, Astarloa, F. Bartolome, J.J. Moguel, Uriarte, E. Azkue, Iturzaeta, Arrese) eta gipuzkeraz (Iztueta, Lardizabal). Eredu berri honek badu zerbait aurreko bietatik: alde batetik, lapurtar idazle klasikoen (Ax, Lç...) forma mugagabea hartzen dute singularrerako²²; beste alde batetik, pluralgiledun (*zeintzu(e)k*) sail berria —mugatu plurala— erabiltzen dute pluralerako. Gure *corpus*aren arabera, sistema honen lehen lekukoa *GauS* (1762) da (*zeintzuek* = nork pl.), baina XIX. mendera arte itxaron behar da sistema berria finkatuta ikusteko. Hona hemen, paradigma berriak:

(6)	<u>MUGAGABEA (sing.) / MUGATUA (pl.)</u>	
(ABSOLUTIBOA)	ZEIN	/ ZEINTZU(E)K (ZEINTSUBAK)
(ERGATIBOA)	ZEINEK	/ ZEINTZU(B)EK (ZEINTSUBAK)
(DATIBOA)	ZEIN(ER)I	/ ZEINTZU(B)EI
(GENITIBOA)	ZEINEN	/ ZEINTZU(B)E(E)N
(SOZIATIBOA)	ZEINEGAZ	/ ZEINTZU(B)EKAZ=ZEINTZU(B)EKIN
(DESTINATIBOA)	ZEINENTZAT	/ ...
(MOTIBATIBOA)	ZEINGAITIK	/ ...
...		
(INESIBOA)	ZEINETAN	/ ZEINTZU(B)ETAN
(ABLATIBOA)	ZEINETARIK	/ ZEINTZU(B)ETATIK
(ADLATIBOA)	ZEINETARA	/ ZEINTZU(B)ETARA
...		

Hau da, edozein kasutan, Iparraldeko tradizio berriko idazleen ildotik, “singularra/plurala” bereizketari eusten diote Mendebaldekoek: haiek “zein/

²² Beovidek (*AsL*), hala ere, lapurterazko eredu berriari jarraitu bide dio; gure *corpus*ean, singularrekoak diren honako bi forma hauek idoro ditugu: *zeina* (nor sing.), *zeinaren* (noren sing.).

zeinak” bikotearen bidez, hauek “zein/zeintzu(e)k” aurkakotasun formala dela medio. Baina hirugarren aro honetan beste urrats bat egiten da: singular eta pluralaren arteko bereizketa —(4)n ez bezala— kasu guztietara zabaltzen da, hots, baita leku-denborazko kasuetara ere.

Labur bilduz, garaiaren eta euskalkiaren arabera hiru eredu nabaritzen dira “zein” erlatibozkoaren deklinabidean: 1) eredu zaharra (XVI, XVII), balio anaforikodun galdegileari —galdegile hutsari bezalaxe— sail mugagabeko atzizkiak gehitzen dizkiona; 2) XVIII eta XIX. mendeetako lapurterazko idazleena, leku-denborazko kasuetan izan ezik, anaforikoa deklinabide mugatuaren arabera (zeina = sing./zeinak = pl. etab.) jokarazi duena; 3) XIX. mendeko bizkaierazko eta gipuzkerazko idazleena, “zein = sing. / zeintzu(e)k” bikotea dela medio, aurrekoen joera leku-denborazkoen sailera zabaldu duena.

3. MENDERAGAILUA

Erlatibo-egitura honi gagozkiolarik aztertu beharreko beste osagai bat menderakuntza-marka da. Bi marka dira nagusi husturiko corpusean: *bait-* eta *-(e)n*. Eta bataren edo bestearen erabileran nabari da, bete-betean, euskalki-banaketa garbia. Horrela, *bait-* menderagailua Iparraldeko euskalkietan (lapurtera, behe-nafarrera, zuberera [*beit-*]) eta Hego-Ekialdekoetan (goi-nafarrera, Baztan, aezkera [*beit-*], zaraitzuera, erronkaria [*bai(t)-/bei(t)-(bi(t)-)*]) erabiltzen da, batik bat. *-(e)n* menderagailuaren erabilerak, oster, Hego-Mendebaldeko herrialdeak hartzen ditu bere barruan, Bizkaia eta Gipuzkoa alegia.

Haatik, joera hori oro har nagusi den arren, aurki daitezke *bait-* zein *-n* menderagailuez baliatu diren autoreak, hala nola, Lizarraga Elkanokoa (1786), Legaz (1880) edo Añibarro (1802, 1803, 1821). Lehenengoek, Lizarragak eta Legazek alegia, idazlan berean darabiltzate. Añibarro, aldiz, batz edo bestiaz baliatzen da, idazlanaren euskalkiaren arabera. Horrela, *Lora Sorta*, *Escu-liburua 1* eta *Escu-liburua 2* idazlanetan, bizkaieraz idatziriko idazlanetan hain zuzen, *-(e)n* darabil, eta *Cristau Dotriña* idazlanean, aldiz, goi-nafarreraz idatzia izanik, *bait-* menderagailua.

Goiago esana denez, menderakuntza-marka hauetaz gain, badira beste batzuk erabilera marjinalagoa ageri dutenak. Ahotan hartzeko lehenengoa, markarik ez erabiltzea da, hain zuzen. Honetaz esan behar da aztertu ditugun idazleatarik ez dagoela inor bide honetaz bakarrik baliatu denik. Menderagailurik ez hau, bestalde, marjinalizat jo daitezkeen gainerakoak baino maiztxoago agertzen da, baina *bait-* eta *-n* baino²³ askoz ere maiztasun txikiagoan.

²³ Bide honen zuzentasuna epaitzea gure bizkar hartuko ez dugun arren -eta gainera ez dagokigu guri-, merezi du gauza bat esatea: Añibarrok, idazlan beraren bi bertsio eginak ditu [*Escu-liburua 1* (1802) eta *Escu-liburua 2* (1821)], lehenengoan, markarik gabeko erlatibo-esaldi baten bat ageri da, bigarrenean, esaldi horiek *-n* menderagailua dute:

() da presondegi, ta toki ilun itsal ikaragarri bat, zeinetan dagoz madarikatuak estu esturik, kateaz loturik,...

(*Escu-liburua 1*)

() da presondegi, ta toki ilun, itzal, ikaragarri bat, zeinetan dagozan galdu madarikatuak estu esturik katekaz loturik,... (*Escu-liburua 2*)

Gainerako “menderagailu marjinalai” dagokienez, aipatu baizik ez dugu egingo: *-(e)la(rik)* (adberbiozkoa), *-(e)la* (konpletiboa), *-enean* (denborazkoa), *ba-* (baldintzazkoa), *-(e)nik* (erlatibozkoa)... Hauen agerpen-maiztasuna, gehienez, agerraldi bakarrera murrizten da.

Labur bilduz, honelako erlatibo-perpausak eraikitzeak, batez ere, bi menderagailuz baliatu eta baliatzen dira idazleak: *bait-* eta *-n*. Eta bata edo bestea erabiltzeko ez dago arrazoi gramatikalik, euskalki-banaketa soila baizik.

4. ORDENA

4.1. Barne-ordena

Azpiatal honetan, erlatibo-perpausaren barruan erabiliriko ordena dugu aztergai. Baina ez dugu aztertuko osagai bakoitzak bere funtzioaren arabera ageri duen ordena (SVO edo SOV), adizkiak duen ordena baizik, adizkiak izenordainari buruz (*zein*-ari buruz) hartzen duen ordena alegia.

4.1.1. Baiezko perpausetan

Hiru ordena bereizi ditugu baiezko perpausetan, eta *1 ordena*, *2 ordena* eta *3 ordena* izena eman diegu, hurrenez hurren.

Lehenengo ordenan, 1 ordenan alegia, izenordainaren atzean bertan ageri da adizkia, eta honen atzean gainerako osagaiak:

(1 ORDENA) *zein + adizkia + gainerako osagaiak*

(...) kontritioneaz bertze dolore molde bat, parabisurako loriaren galtzeko, edo ifernuko penetara ioaiteko beldurtasunetik heldu dena, *zein* deitzen baita: Atritio, Atrizio-nea. (Axular: Gero, 1643)

Bigarren ordenan, adizkia perpausaren amaieran kokaturik dago, erlatibo-perpausaren bukatereko muga adieraziz bezala, eta gainerako osagaiak izenordainaren eta adizkiaren artean.

(2 ORDENA) *zein + gainerako osagaiak + adizkia*

(...) hura da kristino guztiek egiten duten fedearen konfesioan: *zein* komunzki apostuluaren sinboloa deitzen baita (Lç *Ins*)

Hirugarren ordenan, azkenik, adizkia perpausaren barruan kokaturik dago, bai aurrean bai atzean beste osagai batzuk -izenordainaz bestelakoak-dituela.

(3 ORDENA) *zein + osagaiak + adizkia + osagaiak*

(...) orain aipatzera daramatzadan bi mezu hauk, *zeinak* gizonaren ongi bizitzeko baitira hagitz progotxosak (...) (ES)

Azterketa hau egiteko, 859 baiezko perpaus miatu ditugu, eta lorturiko emaitzak, bai orokorrak bai garaikakoak, portzentaietan adierazi ditugu. Emaitzak hauek dira:

a- Emaitza orokorrak:

1 ORDENA:	500 perpaus	58%
2 ORDENA:	168 “	20%
3 ORDENA:	191 “	22%

b- Mendekako emaitzak:

b-1: XVI. mendea.

1 ORDENA:	39 perpaus	52%
2 ORDENA:	15 “	20%
3 ORDENA:	21 “	28%

Mende honetako emaitzak idazle berari dagozkio, Leizarragari alegia. Hortaz, emaitza horiek ez dira oso adierazgarriak garai hartako joera jakiteko.

b-2: XVII. mendea.

1 ORDENA:	138	perpaus	55%
2 ORDENA:	76	“	30%
3 ORDENA:	39	“	15%

b-3: XVIII. mendea.

1 ORDENA:	50	perpaus	57%
2 ORDENA:	13	“	15%
3 ORDENA:	25	“	28%

b-4: XIX. mendea

1 ORDENA:	292	“	60%
2 ORDENA:	64	“	13%
3 ORDENA:	130	“	27%

Datu hauetatik ageri denez, ordena nagusia lehenengoa da, hau da, autoreek adizkia izenordainaren atzean bertan kokatzeko joera agertzen dute. Beste bi ordenei dagokienez, nolabaiteko joera igar daiteke 3 ordenaren alde, XVII. mendean izan ezik, mende horretan 2 ordenak 3 ordenak baino portzentaia altuagoa ageri duelarik²⁴.

Bestetik, jasotako adibideen argira, esan behar da menderagailu baten edo bestearen erabilerak ez duela eraginik ordenaren aukeran; izan ere, *-n* menderagailudun perpausak nahiz *bait-* menderagailudunak atzeman daitezke, esaterako, 1 ordenan:

(...) kristiñau doktriniaren bigarren partia, zeinetan espliketan dan zer eskatu biar dan; (...) (*CatLlo*)

(...) esperantza da berthute bat zeinek emaiten baiterauku fidanzia handi bat (...) (Mat)

Berdin esan daiteke adizkiaren izaeraz, adizkia sintetikoa edo perifrastikoa izateak ez baitakar ordena berezirik.

Bukatzeko, esan behar da perpaus-talde jakin bat, *zein(a) + (bait-) izan (-n)* egiturako perpaus kopulatiboei dagokiena hain zuzen, ia ehuneko ehunean agertzen dela 1 ordenan.

(...),zeren guziek egiten dute gorpuz bat, zein baita eliza(...). (*CatB*)

Labur bilduz, literatura-tradizioan baiezkoko perpausetan goiko hiru ordenak (1, 2, 3) erabili izan dira, 1 ordenak askoz ere maiztasun handiagoa ageri du baina.

4.1.2. Ezezko perpausetan

4.1.2.1. Aditz laguntzailearen ordena

Ordena honetaz bi dira aztertzeko aukerak:

a- Perpaus nagusi arruntan antzera aditz laguntzailea aditz nagusiaren aurrean agertzea: *ez* + aditz laguntzailea + aditz nagusia.

b- Aditz laguntzailea aditz nagusiaren atzean agertzea: aditz nagusia + *ez* + aditz laguntzailea.

²⁴ Adierazi behar da mende horretako 2 ordenako esaldiak ehuneko ehunean autore beraren idazlanetatik datozeela, Pouvrearen *Iesusen Imitacionea* (1660) eta *San Frances de Sales Genevaco ipizpicuaren Philotea* (1664).

Erabili dugun corpusean 55 ezezko perpaus jaso ditugu, euskalki guztietakoak; eta batean ere ez dugu aurkitu aditz laguntzailearen b ordena (aditz nagusia + *ez* + aditz laguntzailea), lehenengo ordena (*ez* + aditz laguntzailea + aditz nagusia) nagusi izanik. Honekin ez dugu esan nahi beste ordena hori erabiltzen duen idazlerik ez dagoenik. Baina gure corpuserako hustu ditugun testuetan idazleek ez dute erabili eta, beraz, zalantzakotzat jo behar dugu²⁵.

Beraz, tradizioaren arabera hauxe da joera nagusia: *ez* + aditz laguntzailea + aditz nagusia.

4.1.2.2. Adizkiaren ordena

Beste ordenari dagokionez, adizkiak ezezko perpausetan izenordainari buruz hartzen duen ordenari dagokionez alegia, baiezkoko perpausetarako erabili ditugun adizkiaren hiru kokapen berberak bereizi ditugu: *1 ordena*, adizkia izenordainaren atzean bertan ageri da; *2 ordena*, adizkia perpausaren bukaeran dago, eta *3 ordena*, adizkiak tarteko kokagunea hartzen du.

Hiru balizko kokagune horietatik, 2 ordena ez dugu perpaus batean ere aurkitu; eta beste bi ordenek maiztasun-alde oso nabarmena ageri dute elkarren artean. Horrela, 55 ezezko perpausetatik 80% 1 ordenan ageri dira, eta 20% 3 ordenan, baiezkotetan bezala adizkiaren izaerak eraginik izan gabe.

1 ORDENA (perpaus nagusia + *zein* + *ez* + aditz sintetikoa/aditz laguntzailea)

a. sintetikoa

(...) asko ezagutu dituzte ni baino gazteagoak, nik bezain luzeki bizitzeko iduri ederra zutenak, eta zeinak ezpaitire orain munduan. (Dh)

b. perifrastikoa

(...) manatu zituen bere azpikoak amarratzeaz gizon haren eskuak eta oinak, eta haren artikitzeaz leze beltz batetara, zeinetan *ez* baida_entzuten nigar-marraskarik eta hotz kharraxkarik baizen. (Lg)

2 ORDENA

(perpaus nagusia + *zein* + aditz nagusia + *ez* + aditz laguntzailea)

Adibiderik ez.

3 ORDENA

(perpaus nagusia + *zeina* + osagarriak + *ez* + adizki sintetikoa/aditz laguntzailea + osagarriak + aditz nagusia)

a. sintetikoa

(...) izate bat guziz handia ta majestategi bethea, zeinaren aldean munduko goratasun, handitasun, distiradura guziak ez paitira herrautsik eta itxurapenik baizen (...) (Dh)

b. perifrastikoa

(...) sekulako berezitzea, zeinaren ondoan bi konpainia eta biltzarre hek ezpaitira sekulan elkharrekin geiago kausituko. (SP *Phi*)

²⁵ Gure corpusaren miaketan emaitza hori izan den arren, Visallantek (1979) dakarkigun adibide batean argi eta garbi ikus daiteke hizpide dugun ordena hori:

Munduko etxe oni goiti ifini eutsan...egunerako eguzkia, zein sei milla urte oneetan beinbere urten бага egon ezta (Añibarro: 1877, Curutze santiaren....)

Bestetik, esaldi honetan orobat nabarmentzekoa da menderagailurik eza.

Mota honetako erlatibo-perpausen barne-ordenari buruz orain arte esandako guztitik atera daitekeen ondorioa da, batetik, ez baiezko perpausen ez ezezkoan ez dagoela ageriko faktore sintaktikorik ez morfologikorik ordena bat bai baina bestea ez hartzea baldintzatzen duenik; bestetik, dirudienez, aditzaren kokatzeko aukera hori lotuta dagoela hitz-ordenaren (eta galdegaiaren) araberrako beharrei. Dena dela, maiztasunaren aldetik azpimarraztekoa da 1 ordenaren nagusitasuna.

4.2. Kanpo-ordena

Aurreko atalean aztertu dugu nola paratuta dauden osagai jakin batzuk corpuseko erlatibo-perpausen barruan. Oraingo honetan, aldiz, erlatibo-perpausak perpaus nagusian hartzen duen kokapena dugu aztergai. Arterketa honetarako, perpaus nagusiaren adizkia²⁶ erabili dugu erreferentzi gune modura, eta bi kokapen bereizi ditugu: adizki nagusiaren aurrekoa (erlatibo-perpaua + perpaus nagusiko adizkia) eta adizki nagusiaren atzekoa (perpaus nagusiko adizkia + erlatibo-perpaua).

Bigarren ordenari dagokionez (adizki nagusia + erlatibo-perpaua), nagusia dela esan daiteke; izan ere, ordena horretan ageri dira perpausik gehienak, bai eta erlatibo-perpaua mendeko beste perpaus bati dagokionean ere.

Azterketa hau are xehekiago egitearren, erlatibo-perpausak adizki nagusiaren atzean ageri denean hartzen duen gunea aztertu dugu. Eta azterketa horretatik ikusi dugunaren arabera, erlatibo-perpausak, oro har, perpaus nagusiaren azken-azkeneko gunean ageri dira, adizki nagusiaren atzeko gune horretan dagokeen beste edozein osagaiaren atzean. Hots, idazleek jotzen dute erlatibo-perpaua azken gunera eramatera, hurrengo adibideetan ikus daitekeenez:

...perpaus nagusiko aditza + osagai/osagarriak + erlatiboa

(...) landarek hostoetarik eta erroetarik edaten dute airearen gozoa; aireak ematen diote hazkurari bat zeina gabe hil bailitazke]. (Dv *Lab*)

(...), ofritzen darozkitut aphezaren eskuz, egiazko jainko bizi eta eternala, ogi hori eta ardo hori, zeinak izan behar baitute ganbiatuak zure seme Jesu Kristoren gorputzerat eta odolerat. (Brct)²⁷

Erlatibo-perpausaren atzera eramate hori garai eta autore guztietan aurkitu dugu, Leizarragarengandik (XVI. mendea) hasi eta Pouvreau (XVII. mendea) edo Larreguy (XVIII mendea) tarteko direlarik Mogel edo Duvoisinengana (XIX mendea).

Bestetik, goraxeago esana denez, “adizki nagusia + osagarriak + erlatiboa” ordena nagusi den arren, ez da bakarra arakatu dugun corpusean, bada “erlatiboa (+osagarriak) + adizki nagusia” ordena ere aurkitu dugu, maiztasun txikiagoan hala ere. Gure corpusean bi hurrenkera aurkitu ditugu, ondoko adibideetan ageri den bezala:

²⁶ Aurrerantzean “adizki nagusi” esango diogu perpaus nagusiko adizkiari erlatiboko-tik bereizteko.

²⁷ Guztiarekin ere, orobat aurki daitezke erlatibo-esaldia azken-azken gunean ez dagoen adibideak. Horrelakoetan, esaldi nagusiari dagokion mendeko esaldiren batek hartzen du kokagune hori:

“(…) gure salbatzaileak ordenatu du eukaristia guziz sainduaren guzien gaineko sakramendu hura, zeinak baitaduka egiazki haren haragia era odola, arren hura iaten duena sekulakotz bizi dadin” (SP *Phil*)

a. “aurrekaria + erlatiboa + adizki nagusia”

(...) baina jaingoak, zeina bethi atzarria baitago bere elizaren gainean, sustatu zuen gizon bat eta jauntzi apostoluen izpirituaz. (*MarI*)

(...) Goragoko VIII, IX eta X numeroetan aipatuak diren indulgentziak, zeinentzat bisitatu behar beita konfarioko eliza, irabaz daitezke, non nahi, aita sainduak, bethikotz, egin duen grazia baten ariaz, (...) (*JesBih*)

Merezi du nabarmentzea perpaus hauetan erlatibo-perpaua adizki nagusiaren aurre-aurrean ageri dela.

b. “aurrekaria + erlatiboa + osagarriak + adizki nagusia”

(...) baina Iesus iauna, zein baita bere aitaren substantziatik eternalki enjendratua, eta haren esentzia bereko, zuzen onez seme bakhoitz deitzen da, ezen ezta (...) (*Lç Ins*)

(...) konsiderazione haukin ondoan, zeinek dakusazun bezala, nahiz bezanbat afekzio-ne onik emaiten baitute, zure orazionea sinpleki serratu behar duzu iankoari eskerrak emaiten diotzatula, (...) (*SP Phi*)

Bukatzeko, gauza bat azpimarratu nahi dugu, gorago jadanik adierazia, eta hauxe da: adizki nagusiaren aurreko ordena honetan oso erlatibo-perpaua gutxi aurkitu ditugula. Beraz, maiztasunaren aldetik “adizki nagusia + erlatiboa” da ordena nagusia.

Labur bilduz, maiztasunaren aldetik, “perpaua nagusiko aditza + osagarriak + erlatiboa” da ordena nagusia; eta adizki nagusiaren aurreko ordenan (erlatiboa (+osagarriak) + adizki nagusia) oso erlatibo-perpaua gutxi aurkitu ditugu.

5. AURREKARIA

Aurrekaria da erlatibo-perpauak modifikatzen duen osagaia; azken adibidean, esaterako, *konsiderazione* dugu aurrekari, berari baitagokio erlatibo-perpaua.

Aurrekariari buruz, bi aztergai erabili ditugu: batetik, aurrekariak perpaua nagusian hartzen duen tokia eta, bestetik, aurrekariaren eta erlatibo-perpauaren arteko distantzia.

Baina azpiatal honetan abiatu aurretik jakingarri deritzogu corpusean aurkitu ditugun aurrekari-motak azaltzeari; eta izaera berezi samarra ageri dutenei lotuko gatzazkie batez ere.

5.1. Aurrekariaren izaera

Zer esanik ez, uste izateko denez, adibiderik gehienetan aurrekaria izen-sintagma arrunta da, bai osakeraren aldetik [(izlg)+iz+(izond)+det], bai kasu-markaren aldetik (kasua partitiboa ere izan daiteke).

(...), ez da herririk hain abandonaturik zeinetan ez batire aurkhitzen zenbait arima lejal, (...) (*MarI*)

Hala ere, hauekin batera beste batzuk aurkitu ditugu, aipatuak izatea merezi dutenak.

a- Aurrekaria = galdegile edo zehar-galdera:

(...) ikusi dezagun nola dakizun zer bear duzun artu, zein baita azkenekoa. (*Legaz*)

b- Aurrekaria = izenordaina edo pertsona-izenordaina:

(...) izpirituz pobreak dire haina hek, zeinek ez baiute deus, eta ez baitute deus izan nahi lurraren gainean edo, (...) (*Jaur*)

(...) zu zeina hain hurbildanik gozatzen baitzare haren beitharte dibinoaz. (*MarI*)

c- Aurrekaria = izen berezia:

(...) ohora eta imita zazu Maria, zeinaren bizi guzia kontsekratua izan baita obra one-tako pratiketan (*MarI*)

d- Aurrekaria = ø

(...) badire zeinen berthutek distiatu baitute, izarrek zeruan bezala: bainan zenbat gehiago (...) (Hb *Egia*)

e- Aurrekaria = aditz-izena

(...) narrikatzen dituzte bertzeak jangoikoa larriki defenditzera, zein baita gaitzbidea edo eskandaloa. (Legaz)

Adibiderik bitxienak, zer esanik ez, erlatibo-perpaua eta aurrekaria egitura berean ageri dituzten adibideak dira, ordea:

(...) bere aita Dabiten begitarte maitea ikusi gabe egoitea gaitzago eta unhagarriago zitzaiola, zeinetan bait zegoen desterrua baino (SP *Phil*)

Beste batzuetan, aurrekariari dagokion izen-sintagmako osagai modura ageri da erlatibo-perpaua:

(...) Haran zeina deitzen baita Oiarzun Donostiarainokoan (ES)

5.2. Aurrekariaren ordena

5.2.1. *Erlatibo-perpaua perpau nagusiari dagokio*

Honi buruz esan behar da aurrekariaren kokapena oso lotuta dagoela erlatibo-perpauak hartzen duen kokapenari. Eta ematen du erlatibo-perpauak berekin daramala bukaera-alderantz aurrekaria. Berau, izan ere, adizkiaren atzean kokatuta ageri da perpauak gehienetan, erlatibozko perpauak bezala. Atzeratze hori perpau kopulatibo zein predikatiboetan aurki daiteke, eta berebat gertatzen da perpauak ordena neutroa edo galdegaia agertu arren.

a. Aditz kopulatiboa + aurrekaria (atributua) + erlatiboa

(...) gurutzea da eskola saindu bat zeinetan har baidetzakegu lekzionerik salbagarrienak (Lg)

(...); andria, bitxi, ta jantzi arro orreek dira lazuz batzuk, zeintzuekin diabruak ostuten deusazan arimak Jesusi. (JJMg *BasEsc*).

(...) Anzuolako erri inguru ta mendi guztiak dira iturri garbiz beteak: zeintzuek urak bakarrik egiñeratzen duten beraren izeneko ibai txiki(...) (Izt C)

b. Aditza + aurrekaria + erlatiboa

(...) esaterako: ilten dozu gizon ezkondu bat, zeinek bere biar, edo irabaziaz emoten eutsen bere emate, eta semeari biar eben guztija; (...) (Astar)

(...) turkoak, herejeak, ta jentil fedegabeak egiten dituzte bekatuak, zeintzuek gatik kondenatzen diran; (...) (Mg CC)

(...) Noeren barka hura gelditu zen Armeniako mendi baten gainean, zeina deitzen omen baita Baris, eta (...) (ES)

Halaber, aurrekaria aditzaren atzera eramate hori ikus daiteke subjektua eginkizun horretan dugunean ere, ondoko adibideetan ageri den bezala:

c. Aditza + aurrekaria (subjektua) + erlatiboa

(...) Jeroboam intentsu erre-arazten hari zen ordu berean, hurbildu zitzaion jainkozko gizon bat, Judako herritik heldu zena, zeina hasi baitzen, oihuz, erraten (...) (Lg)

(...) purgatorio handi eta sendagarri bat du gizon pazienzitsuak, zeinak bidegabeztatua denean damu geiago baitu bertzeren maliziaz bere etsekabez baino: (...) (SP *Imi*)

(...); eta hetarik bat izan zen, Psammetico deitzen zen errege hura, zeinak eman baitzortzen bi haur sorthu-berri artzain batzuei, bere abren artean hazteko (ES)

d. Bestelako ordenak: Aurrekaria + aditza + (osagarriak) + erlatiboa

Aurrekaria mendeko adizki nagusiaren atzean kokatze hori ordena nagusia da erabili dugun corpusean. Baina horretaz gain beste bat aurkitu dugu, aurrekoa baino askoz ere maiztasun baxuagoan bada ere. Bigarren ordena horretan aurrekariaren eta erlatibo-perpauaren artean adizki nagusia ageri da.

Aurrekaria + aditza + (osagarriak) + erlatiboa

(...) egun bat ethorriko da zeinetan ezagutuko baitugu jainkoa dela bakharra (...) (Lg)

(...) anaia bat bazuten yesuista zena, Bordelen theolgal aiphatu izana, zeinarekin Tournely baitzen eskolatua, eta zeinak nausiak baitu kopiatu, (...) (Hb *Esk*)

(...) onetarako Tifris, ta Filis lagun guztietatik gazteenai, ta bozik oneak dituztenai, en-kargatzen diete, ongi etorria guzien izenean ematea, zeintzuek au egiten duten kanta berri onetan, (...) (GavS)

Labur bilduz, halako joera sumatzen da erlatibo-perpauusak berekin eramateko aurrekaria bukaera-alderantz; adizki nagusiaren atzean kokatuta ageri da aurrekaria perpauzik gehienetan. Goiko joera nagusia den arren, badira aurrekaria adizki nagusiaren aurrean ageri duten perpauusak, maiztasun txikiagoan hala ere.

5.2.2. *Erlatibo-perpaua mendeko perpauari dagokio*

Aurrekoetan ez bezala, aurrekaria mendeko perpau bateko osagai denean, oro har, ez da joera nagusirik igartzen aurrekariaren kokapenean, aurrekaria adizkiaren²⁸ aurrean zein atzean aurki daiteke eta.

(...) hortik heldu da hainintz kongregazionetan ezarria den usantza guziz laudagarria, lephotik eralbiltzeko medaila xume bat, zeintan aurkhitzen baitire jainkoaren amarentzat hain lorios diren hitz hauk: (...) (MarII)

(...) bi oien esan-alak ezer etziran, beste amarrai arpegi emateko, zeintzuek deadar egiten zuten (...) (Lard)

(...) Piarresen hitztorio hau akhabatu zuen heltzen ginelarik gure ahaiden artera, zeinak gure begira baitzauden mahainean yartzeko. (Elzb *PAd*)

(...) buru bakhoitz baten azpiko diradelarik, zein baita Iesus Krist iauna ipizpiku subirano, eta unibersal bakhoitza (Lç *Ins*)

(...) beldurra sartuaz gure animako etsaiak, zeintzuek eragotzi nai diguten ebitea zeruko bidetik (Mg *CC*)

(...) bada sainduki eta iainkoaren beldurrean bizitzeko grazia fedez rezebitzen dugu, ebanjelioaz emaiten zaikun promesa rezebituz, zein baita ezen iainkoak emanen draukula bere spiritu saindua. (Lç *Ins*)

(...); baña balitz garizuman, zeinetan ezin egon leitekian lexibia egin бага, orduban agindu leijo (...). (Astar)

(...) aparteko errazoe pisutsu bat agertuten ez bada, edo jazoten ez bada ezkongeiñen artian, zeinek eragotzi legijan jakitunen eiritxijan, berba emonari kobru emotia. (fB *Ic*)

Edozelan ere, mota jakin batzuetako mendeko perpauetan maiztasun handiagoan ageri da lehen ordena, eta beste batzuetan bestea.

a. Mendeko adizkiaren atzeko kokapena



[mendeko perpaua] + aurrekaria + erlatiboa

1- Mendeko perpaua konpletiboa denean, aurrekari den osagaia mendeko perpauseko adizkiaren atzean kokatuta ageri da gehienetan. Hona hemen zenbait adibide:

(...) Jesusek erran zioten bere hirur dizipuluei ordu zela yaikitzeke eta hari yarraikitzeke; ethorria zela orena zeinetan gizonaren semeak utziko baitzuen (...) (Lg)

(...) jadanik erran dugu maihatzaren lehenean, eta ilhabethe berean bertze bi egunez, phartitzen direla maximak zeinetan markatuak baitire berthutezko akta diferentak, (...) (MarII)

²⁸ Perpau nagusiko adizkiarekin egin genuen bezala, mendeko perpauseko adizkiari berariazko izena emango diogu erlatibokotik bereizteko eta, behar izanez gero, perpau nagusikotik ere bai: "mendeko adizki" izena.

(...): arrozinez heldu da; mundu-herri guzian izan zen lehenbiziko hitzkunza izan zela eszitiarrena, zeina orai deitzen baita hebreoa,(...) (ES)

(...) ikhusten dut orai haina dela ofiziorik hobeena, zeinak ere uzten baitu bihotzean gozorik gehiena, (...) (Dv *Lab*)

Zer esanik ez, arakaturiko perpausetan, aurrekaria aditz konpletiboaren aurrean duten perpausak ere aurkitu dira, baina askoz ere kopuru txikia-goan.

(...) guk dugu sinhesten ezen Adamen leinu guzia khotsu hunez khotsatu izan dela, zein baita bekhatu orijinala, (...) (Lç *Ins*)

Aurrekaria atzera eramate hori, bestetik, perpaus konpletiboko aditza *orain aspektugabea* nahiz *iragan zehaztugabea*²⁹ denean ere gertatzen da.

(...) arrekeritzen zaitut ikus dezadan gurutze sakratu hura, zeinaren gainean zure seme dibinoak ixuri baitu bere odola ene salbatzekotzat (*MarII*)

(...) nahi izan du ilhabethe hau osoa izan zadin ilhabethe pribiatu bat, zeintan tresor izpiritualak egonen baitziren idekiak Mariaren zerbitzari lejalen fagoretan. (*MarII*)

2- Aurrekaria *mendeko egitura* deritzokegunetik kanpora ateratzeko joera hori, *zeren...bait-/n* kausazko perpausetan ere ikusten da.

(...) zeren ezbaitira oraiño bethe eta konplitu amorreoen bekhatuak, zeinek baitadukate herri hura (Ax)

(...) zeren estudioko enplegua baita jakin nahizko hidropesia bat, zeinak berekin baitakarke ikhasteko, egartsu ezin asesiaturkoa, (...) (ES)

(...) zeren hura baita eguna, zeinetan Jesu-kristo gure jauna bere phizteaz edo resurrezioneaz sarthu izan baita bere errepausu eternalean. (Arb *Igand*)

Perpaus konpletiboetan bezala, gisa honetako kausazko perpausetan ere, aurrekaria mendeko adizkiaren aurrean ageri duten adibideak aurkitu ditugu corpusean, baina maiztasun baxuagoan.

(...) zeren zure karitatea guziei erakustea gatik, afari handi hura aphaindu duzun, zeinetan emaiten baituzu, ez figurazko bildotza, baina bai zure gorputz eta odol sakratua (SP *Imit*)

3- Beste perpaus batzuk, zeinetan orobat mendeko egituratik kanpo aurkitu baitugu aurrekaria, denborazko perpausak dira.

(...) ethorri nintzenen jaun doni joaniren elizara, zeina baita hibajaren bazterrean, han, (...) (*MarII*)

(...) Samuelek ikhusi zuenean Eliab, haurrideetarik zaharrena, zeina baitzen gizon handi eta iduri ederreko bat (...) (Lg)

(...) baña eldu deinian arako juizijo estu, zeinetan artuko jakun barbarik alpertzubenen kontu ziatza, (...) (Astar)

4- Aurrekaria aditz-izenari dagokionean ere igartzen da halako joera aurrekari hori kanpora ateratzeko:

(...) hainitz progortxo laiteke,(...), emaita beherago aurkhitzen diren maximetarik zenbeit, zeinetan kausitzen baitire markatuak zenbait berthutezko akta, (...) (*MarII*)

(...) manatu zituen bere azpikoak amarratzeaz gizon haren eskuak eta oinak, eta haren artikitzeaz leze beltz batetara, zeinetan ez baida entzuten nigar-marraskarik eta hortz kharraxkarik baizen (Lg)

(...) eta batez ere zeren utzi nauzun eltzea egun untara zeintan zure ohore ta gloriarako eskaintzen dazkitzut nere gogo, itz eta egite guziak, (...) (Legaz)

Beste ordenan, hau da, aurrekaria mendeko perpausaren barruan egonik, esaldiren bat aurkitu dugu, baina oso kopuru txikian.

(...) lehenbiziko bisita horren ondoan, bihur zaitezte zuen etxetarat, jainkoaz betherrik, zuen etxeko lanez artha izaterat, zeinak baitire egun guzietakoak eta baitezpada-koak. (Arb *Igand*)

²⁹ Euskaltzaindiak (1987) erabiliriko terminologia.

b. Mendeko adizkiaren aurreko kokagunea

Bestalde, mendeko perpausa *bezala* erkaketazko partikuladuna edo erlatibozkoa denean, aurrekaria mendeko perpausaren barruan ageri da, eta berari dagokion erlatibo-perpausa, ostera, kanpoan.

(...); aitzitik sar ezazu bihotzean, birjina guziz sailduak egiten ohi zuen bezala, zeinak berean barrena gordetzen baitzituen bere semearen ohoretan erraiten ziren hitz guztiak (SP *Phil*)

(...) jaun jangoiko, zure pasioko señailea maindire saildian utzi zinuena, zeintan bildua izan zen zure gorputz saildua, (...) (Legaz)

Haatik, erlatibo-perpausetan salbuespen bat aurkitu dugu, erlatibo sustantibatu batean hain zuzen. Kasu horretan, erlatibo sustantibatutik kanpo ageri da aurrekaria :

(...) bertzea da lege sailduaren mahaina, dotrina saildua dadukana, fede irakasten deraukuna, eta seguraturik gidatzen gaituena beloaren barrenearaino, zeinetan baitago saildian saildua. (SP *Imit*)

Labur bilduz, perpaus nagusietan ez bezala, aurrekaria mendeko perpausoko osagai denean, ez da igartzen joera garbirik aurrekariaren kokapenean, aurrekaria mendeko adizkiaren aurrean zein atzean aurki baitaiteke. Baina nolabaiteko joera sumatzen da, ordea, mendeko perpausen mota jakin batzuetan aurrekaria ipintzerakoan: a. aurrekaria mendeko adizkiaren atzean kokatzeko joera dago konpletiboetan, *zeren* kausaletan, denborazko perpausetan (*-nean*), aditz-izenekoetan; b. aurrekaria mendeko adizkiaren aurrean ageri da erlatibozkoetan, *bezala* erkaketazko partikuladunetan.

5.2.3. Aurrekariaren eta erlatibo-perpausaren arteko distantzia

Atal honetan ere joera nagusiaz mintzatu behar dugu. Izan ere, idazle guztiek jotzen dute erlatibo-perpausa aurrekaritik ahalik eta hurbilen ipintzera.

Hala ere, beharaxeago ikusiko dugun bezala, kokapen hori ez da beti gertatzen, beste osagai batzuk ager baitaitezke aurrekariaren eta erlatibo-perpausaren artean³⁰; eta horrek irakurketa zail dezake. Honelako hurrenkerak aurki daitezke:

1- Aurrekaria + Erlatibo-perpaus sustantibatua aposizioan + *zein...* *bait-* (...) hurbildu ziztaion jainkozko gizon bat, Judako herritik heldu zena, zeina hasi baitzen, oihuz, erraten: (...) (Lg)

(...) ikusten duzu zure oinetan bekhatos bat, jainkoaren alderat osoki deslejal izan dena, zeinak galdegiten baitautzu zure arartekotasuna (*MarII*)

(...) bizitzau akabau ezkerre, izango dala beste betiko bat, edo iños akabauko eztana: zeinetan egongo dirian, jangoikoa jaingoiko dan arte guztiyan, onak zeruan gloriya gozetan, (...) (*CatLlo*)

Erlatibozko perpaus hauek, halaber, *eta* juntagailuaren bidez elkarri lotuta ageri dira zenbaitetan.

(...) asko ezagutu dituzket ni baino gazteagoak, nik bezain luzeki bizitzeko iduri ederra zutenak, eta zeinak ezpaitire orai munduan. (Dh)

Ikus daitekeenez, *-n* menderagailudun erlatibo-perpausak eta *zein...* *bait-* egituraz eraikiek aurrekari bera dute.

Erlatibo-perpausen arteko hurrenkera, bestalde, goiko adibideetan bezalakoa da perpaus guztietan, hau da, lehenik *-n* menderagailudun erlatibo-

³⁰ Atal honetan ez ditugu kontutan hartuko aurrekariaren eta erlatibo-perpausaren artean adizkia ageri duten esaldiak.

-perpauza eta bigarrenik *zein...bait-* egituraduna. Beste ordenan ez dugu adibiderik aurkitu.

Honi dagokionez, Oyharçabalek (1987) hauxe dio: bi erlatibo-perpau-sen artean halako norabidetasuna adierazten duen erlazioa ezar daitekeenean -gure adibideetan gertatzen ez dena-, ohiko hurrenkera ez dela goiko per-pausena, alderantzizkoa baizik. Eta ondoko bi adibide hauek dakartzkigu:

(239a) gizon bat ezagutzen dut, [zeinek besorik ez baitu] baina [gidarzen duena]

(239b) ? gizon bat ezagutzen dut [besorik ez duena] baina [zeinek gidarzen baitu]

2-Aurrekaria + partizipioa + *zein...bait-*

Ondoko adibideetan ikus dezakegunez, arruntzat jo ditzakegun erlati-bo-perpauzez bestalde, *-n* menderagailu soileko erlatiboez bestalde alegia, partizipioz eraikiak ere ager daitezke erlatibo klasikoaren eta aurrekariaren artean, aposizioan.

(...) bihotzeko urrikimendu bat, iainkoa beragatik, eta harenganako amodioakgatik izana eta hartua, zein deitzen baita: (...) kontrizioea (Ax)

(...) aditzen dut trinitate sainduaren bigarren presuna dela aita zerukoaren seme ba-koitza, egundainoz geroztik haren sustantziatik enjendratua, zein baita aita berdin gauza guztietan; (...) (Mat)

(...) gizona da kultura bat gorputz korruptiblez eta arima inmortalez konposatua eta egina, zeini iainkoak eman baitrauka adimendua eta razoin, (...) (Lç, ABC)

3- Aurrekaria + *zein...bait-+ eta + zein...bait-*

(...) ala Jesus, zeinaren saindatasuna ezagutua baitzen eta zeinak ez baitzion egin po-puluari ungirik baizen (...) (Lg)

(...) segitu behar dire elizaren intenzioak, zeinak sakrifizio hura sofritzen baitu, eta zeinentzat Jesus Kristo bera ofritzen baitzaio trinitate sainduari³¹. (Arb *Igand*)

4- Aurrekaria + osagarria (k) + *zein...bait-*

(...) bada bertze arrazoin bat, emaztetarik apartatzeko, heken artean ez maiz ibiltzeko, eta solhasean ez sobera egoiteko, zein baita exenplo onaren emaiteko, eta eskandalua-ren eskusatzeko dugun obligazioa. (Ax)

(...) eta pederikariek izan dezaten artha berezi bat, fidelak erakhar arazteko lehia han-di baten izaitera erakhar horrentzat, zeina aurkhitzen baita guzien meinekua, (...) (*Mar1b*)

Adibide hauei buruz ondoriozta daiteke osagarriak aurrekariari dagoz-kiola, zeren honela ere eman baitaitezke:

a- bada emaztetarik apartatzeko, heken artean ez maiz ibiltzeko, eta sol-hasean ez sobera egoiteko bertze arrazoin bat, zein baita exenplo onaren emaiteko, eta eskandaluaren eskusatzeko dugun obligazioa.

b- eta pederikariek izan dezaten fidelak erakhar arazteko lehia handi baten izaitera erakhar arazteko artha berezi bat, zeina aurkhitzen baita guzien meinekua,

Batzuetan, oster, ez da hain erraza erlaziorik ezartzea, edo, besterik ga-be, ez dago:

(...) dakusdala ezkerreko alderi deabru madarikatua pozarren ozta; liburuto andi tzar bategaz eskuetan, zeinetan darakusdazan banaan banaan, eta bakotxa berez ene bizi guztiko gaistakeriek eta okerkuntza eskergeak (Añ *El 2*)

³¹ Bigarren erlatibo-esaldiari bagagozkio, *zeinentzat* dugu izenordain; eta berau, for-mari begira, kasu mugagabeen zein mugatuan egon daiteke. Baina autore honek darabilen deklinabide-sistemari begiratu gero, esaldi honetako izenordaina, mugatu pluralean dago. Horrek esan nahi du bigarren erlatibo-esaldi honen aurrekaria *intenzioak* dela. Hortaz, adibideko erlatibo-esaldiek aurrekari bera ez baina bana dute: *eliza* eta *intenzioak*, hurre-nez hurren.

(...) eskerrak bihurtzen darozkitzugu, jainko guziz boheretsua, orai eta bethi zure ongiegin guziez, zeina bizi baitzara, eta erreinatzen baituzu menderako menderetan. (*CatLuz*)³²

Beste zenbaitetan, bestalde, nekez igartzen da erlatibo-perpaua osagariari ala honen aurreko sintagmari dagokion, biei lot baitakieke erlatiboaren adiera.

(...); aitzitik bethi berekin izanen dute bake maitagarri hura(?) bere pobrezia dohasuan(?), zeinak itzultzen baiditu atsekabea atseginetarat, eta bidegabea irabazitarat. (Lg)

5- Aurrekaria + osagarria + erlatibo-perpaua + *zein...bait-*

(...) baina oraiko kofesatzean asko da, aphezaren absobazinoarekin batean, kontritioenez bertze dolore molde bat, parabisuko loriaren galtzeko, edo ifernuko penetara ioaiteko beldurtasunetik heldu dena, zein deitzen baita: (...) atrizioea (Ax)

6- Aurrekaria + adjektibo-sintagma/izen-sintagma (aposizioan) + *zein...bait-*

(...) Samuelek ikhusi zuenean Eliab, haurridetarik zaharrena, zeina baitzen gizon handi eta iduri ederreko bat, (...) (Lg)

(...) da Erromako aphez nausia, lurrean Kristoren bikarioa, zeini guziak baigira obligatuak obeditzera (*CatLuz*)

7- Aurrekaria + adjektibo-sintagma/izen-sintagma + erlatibo-perpaua + *zein...bait-*

(...) guk badiagu, hire graziaz, alianza bat ungiz hobeagorik, eta hire aitzinean alega dezakegunik, zeinetan reposa ahal baikaitezke () (HU *Arp*)

(...) Iainkoa da esentzia bakoitz bat, spiritual, eternal, infinitu, inkomprehensible, egia muthatzen eztena, bere ethortez izate duena, bai eta bothere, zuhurtzia, iustizia eta berthute guzia, zeinetan baitira hirur persona zein bere propietatez distingituak (...) (Lg *ABC*)

(...) lurraren hondarrean edireiten da leze handi bat, labe gori bero bat, behinere hotzten: eta iraungitzen eztena: alde guztietarik hertsia, atherik eta leihorik eztuena: kondonat guztien edukitzeko asko handia, zein baita eta deitzen baita ifernua (Ax)

8- Aurrekaria (-ren) + posposizioa + *zein...bait-*

(...) zeren bekhatua baita iainkoaren kontra, zein baita infinitu. (Ax)

(...) birjina Mariaren imaxinaren aintzinerara, zeina baitzaukaten bere ahalaz aphaindua zuten aldare xumearen gainean. (*CatLuz*)

Piarresek hitzorio hau akhabatu zuen heltzen ginelarik gure ahaiden artera, zeinak gure begira baitzauden mahainean yartzeko. (Elzb *PAd*)

9- Aurrekaria + -ren + izen-sintagma + *zein...bait-*

(...) mitatzazu sailnduen exenplu biziak, zeinak baitan egiazko baitute (SP *Imit*)

(...) athera nintzen elizatik eta bihurtu birjina sailnduaren potretaren aintzina, zeina othoitztu bainuen sar dadila ene agintzen berme; (*CatLuz*)

(...) kontsidera dezagun jainkoaren zuhurtzia, ontasuna eta miseriakordia, zeinak nahi izan baiu mundua salbatu berbo eternalaren inkarnazioneko (...) (Jaur)

Zenbaitetan, hala ere, ez da erraz asmatzen zein den aurrekaria, zeren genitibo-markaren aurrean ageri den izenari zein atzean ageri denari aitor baitakioke eginkizun hori:

(...) bada haiñitz superbiotasun eta deabruaren(?) artifizio(?), zeinak, alegia ederren azpian, zuri pena egitea billatzen baitu (He *Gudu*)

(...) bai, Jesus Kristen(?) manamenduaren(?) araura, zeinen kontra neholetan-ere ioitea ezpaita sori. (Lg *Ins*)

³² Esaldi honetan, aurrekariaren eta erlatibo-esaldiaren artean osagarria agertze horretaz gain, nabarmentzeko da *eta* juntagailuaren bidez loturiko bigarren erlatibo-esaldiak ez duela erlatiboizko izenordainik (*zein*), esaldi honek eta aurrekoak erregimen bana duten arren.

Beste alde batetik, zenbait adibidetan posposizioa ageri da bigarren sintagmaren atzean, aurrekaria erlatibo-perpauzetik areago urrunduz.

(...) zure ganik grazia hauk guziak uste ditut, J Kristo zure semearen merezimenduen bidez, zeinak nahi baitu berak izan, sakrifizio adoragarri hunen apheza eta biktima. (Brte)

(...) etsaien kontra guduan hari den eliza amaren begien aitzinean, zeinek ene deklarazione hau enzuten baitu., (...) (SP *Phil*)

10-Aurrekaria + *bezala* + *zein...bait-*

(...), eta sugeak bezala egiten du, zeinak non ere burua sartzen baitu, handik gorputz guzia errazki atheratzen baitu. (SP *Phil*)

(...): urrun da, bainan ba aita amultsu bati bezala, zeinak zehatzen bai-ditu bere umeak, maite dituelakotzat. (Lg)

11-Aurrekaria + *baizik (baizen)* + *zein...bait-*

(...) eta iturbide bakoitz bat baizen ez dugu, zein baita haren miserikordia. (Lç *Ins*)

(...) eta eztutela berze ithur-bururik, gure burua ganako amudioa baizen: zeina nahasten baita eta aldaratzen ikustez eskas garella. (SP *Phil*)

12- Bestelakoak

Gisa hauetako perpauzez gain —maizkoenak—, badira beste batzuk; baina hauetan, aurrekariaren eta erlatibo-perpauaren artean ageri diren osagaiak aurrekaria eta erlatibo-perpaua txertatuta dauden perpauari dagozkio.

(...); gero hur hartaz phereka zazua idia, gero berze alimale guziak zeinaren bidez kasatuko bitire heietarik leizor manduli eta berze ulli suerte guziak... (Mong)

(...) onetarako Tifis, ta Filis lagun guztietatik gazteenai, ta bozik onenak dituztenai, enkargatzen diete, ongi etorria guzien izenean ematea, zeintzuek au egiten duten kanta berri onetan. (GavS)

(...) Donostiako uriak gai guztietarako eman izan ditu seme argidotarrak, erarik egokienarekin tokirik oberenean arkitu izan dalako; zeintzuek izendatuko ditudan bakotxa beren saillari darraizkiola eliztarretatik asirik (Izt, C)

Hurrengo adibidean, erlatibo-perpauaren eta aurrekariaren artean, azken hau osagai duen perpau bat ageri da.

(...) bitartean Jakob'en emazte eta humeak eldu ziran, eta Esau'ri agur egin zioten, zeintzuek ikustearekin Esau'k atsegin andia artu zuen. (Lard)

Beste zenbaitetan, erlatibo-perpauaren eta aurrekariaren artean, honi dagokion azalpen edo xehetasunen bat dakar perpauak.

(...) aita bat, jainko bezala, zein baita aita eternala; eta ama bat, gizon bezala, baita birjina Maria saindua, ez duelakoz aitarik gizon bezala, eta amarik jainko bezala. (CatLuz)

(...) badira tokiak, hala-nola Lorrena, zeinetan belharrak iguzkiztatu gabe idorrazten baitituzte (Dv *Lab*)

(...) etorriko da ordua eta laster, zeinetan orai ni behar bezalakoa balin+banaiz, aingeru eta saiduekin (...) (Dv *LEd*)

Laburtuz, idazle guztiek jotzen dute erlatibo-perpaua aurrekaritik ahalik eta hurbilen ipintzera. Hala ere, kokapen hori ez da beti gertatzen: horrelakoetan aurrekariaren eta erlatibo-perpauaren artean beste osagai batzuk ageri dira eta horrek irakurketa zail dezake.

6. BALIO SEMANTIKOA

Izenburu honetaz murriztaile/ez-murriztaile aurkakotasunari gagozkio. Jakina da euskararen inguruko hizkuntzetan eta euskararen bertan ere (Villasante 1979; Goenaga 1980; Arejita 1978; Oyharçabal 1987) bereizketa semantikoa egin daitekeela, erlatiboazko perpauak murriztaileetan eta ez-murriztaileetan bananduz.

Bereizketa hau funtsean honexetan datza. Esaterako, demagun ondoko bi perpaus hauek ditugula:

Greban dauden langileek hitzarmena sinatu dute enpresako zuzendaritzarekin.

Langileek, zeinak greban baitaude, hitzarmena sinatu dute enpresako zuzendari-tzarekin.

Darabilgun bereizketa honen arabera, lehenengo perpausean erlatibo murriztailea dugu, zeren erlatibo-zko perpausaz langile-sail jakin bat banandu baita enpresako langile guztietatik: greban dauden langileez osotutako saila alegia. Bigarren perpausean, oster, erlatiboa ez-murriztailea izango da; izan ere, bigarren honetan ez dago bereizketarik greban dauden eta ez dauden langileen artean, enpresako langile guztiak greban baitaude. Horrexetan datza, beraz, gutxi gorabehera bereizketa hau.

Bestelako auzia da semantika-mailan egindako bereizketa horrek islapen sintaktikorik ba ote duen, hau da, banaketa semantikoaren eta egitura sintaktikoen artean ba al dago banan-banako erlaziorik?

Euskaraz den bezainbatean, autoreek bereizketa hori aipu badute ere (goraxeago ikusi dugun bezala), gutxi darabilte bereizketa semantiko horren gauzapean sintaktikoaren auzia. Horietarik bat, Oyharçabal 1987 da, eta haxe dio horretaz (1987:192):

Il est évident qu'en basque, comme en français, il est possible de distinguer entre les deux types de relatives, mais il n'en résulte pas que chaque type renvoie à un marqueur spécifique, et plus généralement, à des descriptions structurales différentes.

Hau da, zilegi dugu bereizketa hori semantika-mailan egitea; baina sintaxi-mailan, euskaraz behintzat, ez dago harako bereizketarik burutzerik.

Hala ere, *zein bait-* egituradun erlatibo-perpausen eginkizun semantikoari bagagozkio, badago, edo igartzen da, gramatikarien artean, halako joera gisa honetako erlatiboek ez-murriztaileen esparrua bakarrik aitortzeko. Horrela, Villasantek (1979:87), Goenagak (1980:294) eta Arejitak (1978:133), besteak beste, argi eta garbi adierazten dute mota honetako erlatiboa erlatibo ez-murriztailea eraikitzeke erabiltzen dela³³. Hortaz, eta goiko paragrafoan generabilen auzira itzulirik, autore hauen esanaren argira, badago, nolabait, murriztailearen eta ez-murriztailearen arteko bereizketa semantiko hori sintaxi-mailan gauzatzea. Izan ere, *zein bait-* egitura sintaktiko honi, esparru semantiko zehatz eta mugatua ezarria diote, ez-murriztailea, alegia.

Oyharçabal (1987), aldiz, ez dator bat autore horiekin, eta aditzera ematen du erlatibo-mota hau bai murriztailea bai ez-murriztailea egiteko bali daitekeela:

Je ne pense pas par conséquent que l'on puisse suivre Goenaga et Villasante en associant automatiquement une interprétation non restrictive aux relatives en *zein*. Cette valeur se rencontrera souvent, mais pas obligatoirement. (208 or.)

Hau ikusita, ondoriozta dezakegu ez dagoela adostasunik autoreen artean, egitura sintaktiko honi esparru semantiko zehatza esleitzean; bada batzuek,

³³ Batzuek, hala nola Villasantek (1976:87), nabarmentzen dute horixe dela erabilpen-esparru bakarra: "Pero téngase en cuenta que este procedimiento vale únicamente para las adjetivales explicativas, o sea, para las no restrictivas".

goraxeago ikusi dugunez, adiera ez-murritzailera mugatzen dute haren erabile-
ra eta beste batzuek (edo batek), oster, ez dakarte inolako murritzetarik.

Darabilgun corpusetik atera ditugun datuak arakutzen baditugu, beste-
tik, Oyharçabalekin bat egin beharra daukagu. Izan ere, nahiz eta *zein bait*-
egitura erlatibo ez-murritzailera egiteko erabiliago dagoen, ez dira banakak
adiera murritzailera onartzen duten adibideak.

Hau autore guztietan agertzen da, euskalki batekoak zein bestekoak
izan eta, halaber, ez bakarrik erlatibizazio zaila duten deklinabide-kasuetan
(*non*, *nondik*, *zergatik*...), baita *nor*, *nork* eta *nori* kasuei dagokiela ere, on-
doko adibideetan ikus daitekeen bezala.

(...) jaun handi hura zeinaren aintzinean zeruak eta lurra ikharatzen baitira, zanka-
petan ibili dut ostikoka (Dv *LEd*)

(...) profetek erakusten dute eliza mendixken gaineko hiri bat bezala, argitu eta bildu
behar dituen nazione guziak, mendi gora bat bezala zeinetarat ethorriko baitire po-
puluak ostez. (Hb *Egia*)

(...) hau da atheka zeinetarik iragan behar baita: (...) (ES)

(...) bekatu hura zeintaz kutsaturik sortzen baikara Adam gure lehenbiziko aitaren be-
katua dela kausa (Mat)

(...); etoria zela orena zeinetan gizonaren semeak utziko baitzuen bere burua bere
etsaieen eskutarat. ... (Lg)

(...) Maria sortzen da jainkoarentzat, haren zerbitzatzeko, haren maitatzeko haren
ama izateko, sartzeko haren xede guztietan, zeinentzat egin izan baita gizon. (Jaur)

(...) da gura zeineki guziok jaiotzen beikira, (...) (Cat*Ae*)

Goiko adibide guztiek erlatibizatzen zail diren kasuak dakartzate eta
idazleek *zein bait*-egitura erabiltzera jo dute, mezua argi eta garbi eta gaizki-
-ulerturik gabe igortzeko.

Dena den, gorago esana denez, adiera murritzailera daukalarik, kasu be-
rezi horietara mugatu ez eta inolako eragozpenik gabeko kasuetara (*nor*, *nori*,
nork) ere hedatzen da erlatibo klasikoaren erabiltzea. Hona hemen zenbait
adibide:

(...) esperanza da berthute bat zeinek emaiten baiterauku fidanzia handi bat iainkoa-
ren faborearekin batean zeruko loriaren ardiesteko. (Mat)

(...) baldin ezagutzen baginu, birjina sainduak bezala, gaztigu horren handitasuna,
urrikalmendu ekhar ginezokete hainbertze populuei, zeinek galdu baitute fedea, hain-
bertze bekhatorosei zeinek galdu baitute grazia; (...) (Jaur)

(...) ekhar daitezke bertze hainitz exenplu zeinek erakhusterat emaiten baitute, den-
bora eta lekhu guztietan, (...) (Mar*It*)

(...) duela ehun urthe hurbil, Jesusen konpainiako aitetarik batek, Agustin Kardabe-
raz donestiarrek argitara eman zuen liburu bat zeina deithu baitzuen: aita san Igna-
zioren ejerzizioen gañean afektoak. (Dv *LEd*)

(...) ez da hain etxeko jaun ttipirik zeinak ez baitezake harts urthe batez phuska bat
(Dv *Lab*)

Hauetan sartzekoak dira, orobat, zerbaiten existentziaren berri ematen
duten esapideak.

(...) badira presunaja batzuek zeinei idurutzen baitzaie halako hitzak eztirela eskuaraz-
koak, (...) (ES)

(...) tokiak badira zeinetan lasterrago bakhandu behar baita. (Dv *Lab*)

Guztiarekin ere, badira perpausak zeinetan zail baita igartzea erlatiboa
murritzailera ala ez-murritzailera den, bi irakurketa horiek eman dakizkieke eta.
Hona adibide batzuk:

(...) entzuten dut jaunaren dei amultsua zeinak ezтики erraiten baitarot: zeren hunela
utzi eta bazterrerat eman nauzun zutaz naiz, nere haurra. (Dv *LEd*)

(...) da Abe Marija orazione bat, zeinetan emoten jakazan ama birjiniari emon al lei-
jozan alabantzarik andijenak, (...) (Astar)

(...) ikusten da oraindik etxe santu artan san Francisco bizitu zan gela, baita ere arrizko bat zeinaren arrimuan desneke arin bat artu izaten zuan. (Bv *AsL*)

Lehenengo begiradan burura lekiguke koma agertzea edo ez agertzea erabil genezakeela irizpide modura bi perpaus-mota horiek bereizteko. Horrela, komarik agertuz gero erlatibo ez-murritztailea izango genuke, eta komarik agertu ezean murritztailea. Baina, oro har horrela egiten den arren, bereizpide hori ez dago era sistematikoan erabilia eta aurki daitezke komadun erlatibo murritztaileak eta komarik gabeko ez-murritztaileak.

Murritztaileak baina, hala ere, komarekin:

(...) eta elduko da eguna, zeinetan irakurriko yatan guztia erabatera. (Añ *EL 2*)

(...) urusak estimatzen ditugu gure aneietarik hainak, zeinek izan baitute zori ona bere jainkoarentzat hiltzeko. (Jaur)

(...) purgatorioa da leku bat, zeinetara yoaten dirian graziyan ilten dirianen arimak, (...) (*CatLlo*)

(...) predestinazionea da iainkoaren konseillu eta ordenamendu eternala, zeinez ordenatu baitu batak salbamendutara eta berzeak damnazionetara, (...) (Lç *ABC*)

(...) zeren hura baita eguna, zeinetan Jesu-Kristo gure gure jauna bere phizteaz edo resurrezioneaz shartu izan baita bere errepausu eternalean (Arbel *Igand*)

Ez-murritztaileak baina komarik gabe:

(...) zeinek, aithortzen dut, ez baininduten guti izitu... eta gero, bi gizon bizardun zeinek gutiago izitu baininduten, batean ezagutu nuelakortz nere anaia (Elzb *PAđ*)

(...) biharamuean zeina baitzen ortzeguna, eta hiltzeko bezpera, (...) (Lg)

(...) Jesu Kristo yautsi zen bere hirur apostoluekin Thaboreko menditik, eta hurbildu zen bertze dizipulutara zeinak aurkhitzen baitziren mundutze handi batez inguratutik (Lg)

(...) era bitara da errosarioa; batari deritxo ama birjinearen koroia zeinek dituzan zazpi amarreko (...) (Añ *EL2*)

Ondorio gisa honako hau esan daiteke:

1. Zuzena dateke semantika-mailan “murritztaile/ez-murritztaile” bereizketa egitea; baina euskaraz sintaxi-mailan ez dago horrelako bereizketarik egiterik.

2. Egitura hau maizenik erlatibo ez-murritztailea adierazteko erabiltzen den arren, ezin da mugatu esparru soil horretara; izan ere, tradizioaren arabera erlatibo murritztailea adierazteko ere erabil daiteke.

7. PUNTUAZIO-ZEINUAK

Halako joera nagusia igartzen da puntuazio-zeinuari buruz. Joera horren arabera, zein erlatibo-mota adierazi nahi den, hurrenez hurren, koma erabiltzen da (ez-murritztailea) edo ez (murritztailea).

EZ-MURRIZTAILEA: KOMA ARTEAN

(...), eta sugeak bezala egiten du, zeinak non ere burua sartzen baitu, handik gorputz guzia errazki atheratzen baitu. (SP *Phil*)

MURRIZTAILEA: KOMARIK GABE

(...) jaun handi hura zeinaren aintzinean zeruak eta lurrak ikharatzen baitira, zankapetan ibili dut ostikoka (Dv *LEđ*)

Corpusean, hala ere, komaz beste puntuazio-zeinua dakarten adibideak atzeman daitezke: puntu eta koma, bi puntu, eta are puntu ere.

(...) bizitzau akabau azkero, izango dala beste betiko bat, edo ifios akabauko eztana: zeinetan egongo dirian, jangoikoa jangokio dan arte guztiyan, (...) (*CatLlo*)

(...) ikuskera negargarri onetan ziñozan, arik eta Beronike andra errukiorrak garbitu artean bere izaratxoak; zeinetan, erruki ardurazko onen orde sariz, itxi zeuntzan zeure arpegiko antz-irudiak (Añ *EL1*)

Handik heldu da halaber, gezur erraitea, elkharren ez sinhestea, eta fidantzia gabe, bethi gogan behartsu ibiltzea. Zein baita kalte handia, elkharren artean bizi behar dutenentzat: (...) (Ax)

3. EGITURA HONEN TOKIA GAURKO EUSKARAN

XX. mendearen lehen zatiko gramatikarien (Azkue, Altube, Lafitte...) erasoaldiaren ondoren eta mende honetako literatura-tradizioan erlatibo berezi honek izan duen etenaldiaren ondoren (supra 1), badirudi gaur egun egitura honetaz baliatu nahi duenak bere burua zuritu edo justifikatu beharra daukala; hau da, tradizio luze eta ongi finkatuak ematen dion zilegitasuna gorabehera, aurreiritzi linguistikoek pisu handiegia dute gure artean eta oraindik ere erabilera justifikatu beharra egoten da, erabilerarik eza eta tradizioarekiko etena azaldu beharrik ez badago ere.

Esanak esan, XX. mendearen bigarren zati honetan gramatikari (Villasante 1979, 1988) eta idazle zenbaitek (Aresti) tradizioko baliabide hau biziberritzeko edo berpizteko saiakera egin dute; nolanahi ere, gaurko gramatikari eta idazleen iritziak ez dauka antzik ere mende-hasierakoenarekin, esan nahi baita ez dituztela halako irizpide estu-estuak auzi honetan³⁴. Jarrera-alaketaz jabetzeko, aski da gogoratzea 1952an Altubek berak oso bestelako iritzia zuela puntu honetaz; alegia, orduan, Villasanteri aitortu omen zion “*Erderismos* berriz ere atera behar balu, zenbait gauzatan zabalagoa izango zela; batez ere anaforiko batzuk erabiltzea zilegitzat joko lukeela...” (Altube, 1929: viii).

Azter ditzagun lehenik “zein” erlatibozkoa ez erabiltzeko eman diren arrazoiak, anaforikoaren erabilera-eremua eta mugak eztabaidatzera pasa aurretik.

Bi dira “zein” erlatibozkoaren —eta oro har balio anaforikodun galdeztzaileen—aurka azaldu diren eragozpenak (Villasante 1988:205-206): 1) horrelako egiturak latinaren eta latinetik hizkuntzen eraginez sartu direla euskaran; 2) horrelako partikulak, berez, galdetzaile hutsak direla eta ez dela zilegi galderarekin zerikusirik ez duten zereginetara horiek hedaraztea. Eragozpen hauei dagokienez, esan beharra dago hizkuntzalariek (Lafon 1944; Gavel 1929, I:§97) ez dutela hain garbi ikusten latinaren eraginaren teoria. Lafonek (1944:487-489) dioenez, beharbada latinaren ereduak lagundu izan du horretarako, baina berez ere euskal galde-hitzak ez dira galdetzaile huts-soilak; mugagabe-kutsua ere badute (*nor balitz, nori berea, zein bere..., nor bere..., ni ez naiz nor, norbait, inor, inoiz, edonor, noiznahi, zeinahi, zerbait...*), eta orduan errazago ulertzen da enplegu batetik bestera lerratze hori. Bestalde, Villasantek dioenez (1988:206), latinaren eraginaren teoria egia balitz ere³⁵, hori ez litzateke arrazoi nahikoa izango mendeetan barrena aise

³⁴ Goenagak, zalantza artean bada ere, aldeko iritzia azaltzen du *zein bait*- tankerakoei buruz: “forma hauek ez dute oso fama ederra, baina agian erabilgarriak dira.” (1980:294). Eta ez du bat ere zalantzarik “bait-” soilaz eraikitzen diren erlatibo ez-murritztaileei buruz: “Eta geuk ere erabili beharko genuke, praktikoa izan baitaiteke.” (1980: 338).

³⁵ Ohar gaitezen, dena den, erdizka baizik ez litzatekeela beteko kanpoko eragina, “bait-” soila Leizarragaz geroztik barra-barra erabili izan baita Ekialdeko euskalkietan erlatibo ez-murritztailearen balioaz (ik. *OEH*, III:708-709, “bait-” partikulari eskainitako hirugarren sarrera). Hots, kalkoaren posibilitatea onartzekotan, erdizkako kalkoaz hitz egin beharko genuke; izan ere, Oihartzabalek agerian jarri duenez (Oyharçabal 1987:303-307), euskal erlatibo honek baditu bereizgarri batzuk erlatibo erromanikoaren aldean: a) euskaraz, inguruko erromantzeetan ez bezala, ez da beti betetzen galdetzaile eta izenordain erlatiboen arteko berdintasun formal (fr. “ils m’envoyèrent un enfant qui avait dix ans”; eusk. “*igorri zautaten haur bat, nork hamar urte baitzituen”); b) menderagailuaren (*bait-l-n*) erabilera. Hizkuntza-

erabili den egitura errotua bat-batean lurperatzeko. Izan ere, eraginak eragin, latinez (Lafon 1944:488-489) eta latinaren eremutik kanpo ere (hizkuntza germaniar eta eslaviarretan, eta are georgieraz³⁶ ere) eboluzio berbera bete da, alegia, galdetzaileek izenordain erlatiboen zeregina ere bereganatu zuten eta horregatik bigarren zeregin hori ez da madarikatua izan gure artean bezala.

Villasantek ezin hobeto azaltzen du gure artean “zein” erlatibozkoa eta oro har galdetzaile anaforikoak ez erabiltzeko dagoen beste eragozpen bat. Hona hemen, bere hitz kritikoak: “Gurean beste makur bat egiten da oraindik: elkar hizketan erabili ohi den sintaxia hartzen dela eredu bakar edo orokor bezala. Jakina, elkar hizketan toki guti da anaforikoentzat; eta orduan, hor ageri ez dena, beste literatur motetatik ere erauzi behar omen da” (Villasante 1988:207). Eta honek beste galdera hau dakarkigu gogora: “zein” anaforikoak ba ote du tokirik ahozko euskaran? Galdera horri sarritan ezezko biribil batez erantzun zaion arren, zubereraz behintzat halako anaforikoak ahozko hizkuntzan erabiltzen direlakoan gaude. Batetik, hor dago Mitxelenaren oinoharra³⁷, zuberotar batek ahoz halakoak naturaltasun osoz erabiltzen zituela ziurtatzen duena. Bestetik, *Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoaren* arabera, non eta Zuberoako Eskiulan eta Santa Garazin, “zuñ” anaforikoaz baliatu dira hiztunak erlatibozko perpausak euskaratzean³⁸. Dena dela, azken datu hauek ez dute balio —edo ez lukete balio behar— aukia erabakitzeko, galdetzaile anaforikoen aukia ez baita sekula planteatu ahozkoaren mailan, idatziarenean baizik. Hots, ahozko hizkeran bizitza murrizta edo ez hain murrizta izanik ere, beste hau da eztabaidakizuna: zergatik erauzi behar dira hizkuntzaren tradizio idatzitik erlatibozko izenordainak? Eta orduan ahozkoaren inguruko emaitzek ez gintuzkete gehiegi kezkatu behar. Begien bistan dago, dena dela, anaforiko hauek toki gutxi dutela ahozko mintzairan.

Esanak esan, hizkuntza idatzia badiu premia batzuk, ahozkoak ez dituenak eta, hain zuzen ere, idatzizkoaren eremu horretan kokatu nahi izan dute gaurko gramatikari eta idazle zenbaitek “zein” erlatiboaren erabilera eta “berpiztea”. Idatzia barruan, batzuek (Villasante 1979:88; Villasante 1985:980; Villasante 1988:207, 141-154) prosa landuari eta itzulpengintzari lotua ikusten dute baliabide honen erabilgarritasuna, bestelako egitura eta bideak ezertarako itxi gabe. Geu ere, iritzi horretakoak gara: gure ustez ez dago arrazoirik galdetzaile anaforikoei ateak ixteko, neurri handi batean bide horri esker ikasi baitu euskal prosak Sartaldeko prosaren bide nazioartekoe-

lari honen hitzetan “(...) Ceci montre que l'emprunt s'est opéré en fonction de possibilités internes au basque car le simple calque n'aurait pas conduit à l'usage de ces relateurs qui sont absents dans les langues qui sont supposées avoir servi de modèle” (1987:306).

³⁶ Ik. Mitxelenaren oinoharra in Villasante (1979:88). Egia da, hala ere, bilakaera hori hizkuntza indoeuroparretatik kanpo —hizkuntza finougriarretan, adibidez— hizkuntza indoeuroparren eraginez esplikatu izan dela (ik. Lafon 1944:487-488).

³⁷ “Mlle. Jauréguiberry, en Bilbao, empleaba en exposición oral, con toda naturalidad, frases relativas con *zuñ*, que tengo anotadas” (Villasante 1979:88, 2. oinoharra). Bestalde, zubereraz sarritan hurrengo hitzez ematen zaio hasiera gutunari: “ükhen dit zure letra, zuñek erraiten beitü...” nahiz “ükhen dit zure letra, zuñtan erraiten beitüzü...” (Lafon 1966:222).

³⁸ “L'homme avec lequel j'ai parlé n'est pas grand comme ton fils” = “El hombre con el que yo he hablado no es tan alto como tu hijo”. Eskiula: “gizuna zuñeki mintzatü beniz ez-tük hire semia bezañ handi”; Santa Garazi: “gizuna zuñeki elhestatü beniz ez düzü handi zure semia bezala” (Aranzadi Zientzia Elkarte 1983).

atik ibiltzen, bide hori aberasgarri eta “homologagarri” gertatu baita euskal prosarentzat³⁹. Baina, jakina, bide berriak bere tokia eta bere mugak ditu eta, ateak ixtea kaltegarritzat jotzen dugun era berean, kaltegarritzat joko genuke erlatibo-mota honi sarbide zabalegia ematea eta itzulpengintzan, adibidez, erdarazko erlatibo guztien ordain bakartzat erabiltzea (ik. Biguri 1994). Es-kuinalderako hedapenak baditu bere alde onak itzulpengintzan⁴⁰ (besteak beste, kultura-hizkuntzetako perpaus konplexu eta korapilatuak gehiegizko egokitzapenik gabe itzultzeko erraztasuna) eta, abantaila horien izenean ez bada ere, baliabide horri etekina ateratzen ikasi behar genuke.

“Prosa landua” aipatu dugu goraxeago eta esapide horrek beharbada na-hasteak edo gaizki-ulertuak sor ditzake gure artean. Guk “prosa” terminoari bere zentzurik zabalena eman nahi izan diogu, literaturara mugatu gabe. Eta orduan horrek esan nahi du erlatibo anaforikoen baliabideak literaturan ez ezik —saiakeran, adibidez, eta agian beste zenbait generotan ere bai—, bes-telako hizkera-moldeetan ere sarbidea izan dezakeela. Horrela, gure ustez, es-kuinalderako hedapena duten euskal erlatiboak guztiz erabilgarriak gertatu-ko dira, esaterako, hizkera estandar jasoaren mailan (kazetaritzako iritzi-arti-kuluetan), hizkera zientifikoetan, giza eta gizarte-arloko jakintzetako tekno-lekto berezi batzuetan (zuzenbideko hizkeran, diskurtso filosofikoan...) erre-gistro jaso-landuen mailan⁴¹ behinik behin.

Ondorioz, gure ustez ez da zilegi, garbizaletasun sintaktikoaren izenean eta kanpoko etorkiaren aitzakian, gure idazleek mendeetan barrena garatu duten baliabidea baztertu nahi izatea. Baliabide honen tresnatasuna eta ba-liagarritasuna ukazina da “prosa landua” garatu nahi duen hizkuntza ba-tentzat: hau da, hizkera (idatzi) jasoan eta hizkera tekniko eta zientifiko ba-tzuetan, erregistro (idatzi) jasoaren mailan behintzat; eta zer esanik ez, egitu-ra hau are emankorragoa izan daiteke itzulpengintzan. Baliabide honi ateak ixtea kaltegarritzat jotzen dugun era berean, kaltegarritzat joko genuke erla-tibo-mota honi sarbide zabalegia ematea eta itzulpengintzan, adibidez, erda-retako erlatibo guztien ordain bakartzat erabiltzea.

AIPAMENAK EGITEAN ERABILITAKO LABURDURAK

DVEF = Azkue, 1905-1906.

MV = Azkue, 1923-25

³⁹ Villasanteren hitzetan “(...) bada subordinazio sistema bat Mendebaldeko hizkuntza landu guztietan onartua dena eta guk ere behar-beharrezko duguna eta gure idazleek erabili dutena, gainera. Zilegi ote da etxeko ondasuna leihotik kanpora botatzea horren beharrean garenean?” (Villasante 1985:980).

⁴⁰ Baliabide honek bidea egin badu gure tradizio idatzian, aitortu behar da garapen hori neurri handi batean itzulpenaren ondorioz gauzatu dela.

⁴¹ Hots, gure ustez, hizkera espezializatueta ere erregistroak edo mailak bereizi behar lirake. Administrazioa hizkeran, adibidez, ez da gauza bera herritar arruntari zuzenduta-ko mezua eta teknikarien artean erabiltzekoak. Zentzu horretan, egitura honenganako erre-zelo gutxiagorekin bada ere, ados geundeko IVAPen proposamenekin (IVAP 1994: 137-139) erregistro apalenetan aritzen garenerako, baina ez geundeko hain ados joera garbizale hori maila jasoetara zabaltzearekin. Bestalde, aipatu lanean ematen diren irizpide batzuk ez dira bat ere seguruak (“mimesizko itzulpena jatorra dela? Egin dezagun, bada. Ez duela ba-lío? Orduan esaldia moztu...”); izan ere, “jatortasuna” bezalako kontzeptuak guztiz labanko-rrak dira esku artean darabilgun auzian: ba ote da “jatortasuna” neurtzeko irizpide objekti-borik norberaren aurreiritzi, gustu eta lehentasun linguistikoetatik kanpo?

OEH = Mitxelena, L., 1987-1992 *Orotariko Euskal Hiztegia*, (Bilbao, Descle De Brouwer; Ediciones Mensajero). [Besterik zehazten ez den bitartean, "bait-" sarrera biltzen duen hirugarren liburukiari dagokio aipamena.]

HLEH = Sarasola. I., 1984-1995, *Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia*, Donostia, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala-Kutxa Fundazioa.

BIBLIOGRAFIA

- ALTUBE, S. (1929), *Erderismos*, Bermeo, Gaubeka.
- ARANTZADI ZIENTZI ELKARTEA, ETNOLOGI MINTEGIA, (1983), *Euskalerriko Atlas Etnolingüistikoa -EAEL-*, Muniberen eranskina, Donostia.
- AREJITA, A. (1978), *Euskal joskera*, Durango, Leopoldo Zugaza.
- AZKUE, R.M.^a. (1905-1906), *Diccionario vasco-español-francés*, 2 liburuki, Tours. (2. argitaraldia, Bilbao, La Gran Enciclopedia Vasca, 1969.)
- (1923-25), *Morfología Vasca (Gramática básica dialectal del euskera)*, [=Bilbo, La Gran Enciclopedia Vasca, 1969.]
- BATZUEN ARTEAN. (1994), *Hizkera argiaren bidetik*, Gasteiz.
- BIGURI, K. (1994), "Erdarazko erlatiboaren itzulpenaz", *Senez*, 10, 37-71.
- CAMINO, I. (1991), "Aezkerazko Testuak II: Orbarako Dotrinak", *ASJU*, XXV-3, 929-960.
- CAMPION, A. (1884), *Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua euskara*, Tolosa. (Bilbo, La Gran Enciclopedia Vasca, 1977, 2 liburuki.)
- ETCHEBERRI, J.D. (1712), *Eskual Herriari eta eskualdun guztiei eskuarazko hatsapenak latin ikhasteko*, berrargitalpen partziala X. Kintana (ed.), *Lan Hautatuak*, Donostia, Lur Editoriala, 1972, (Kriselu 21), 219-254.
- EUSKALTZAINDIA (1987), *Euskal Gramatika, Lehen Urratsak II*, Bilbao, Euskaltzaindia.
- FLORISTAN IMIZCOZ, J.M. (1993), "Conflictos fronterizos, espionaje y vascuence a finales del S. XVI. 20 documentos inéditos.", *FLV* 63, 177-219.
- GAVEL, H. (1929), *Grammaire Basque. I Phonétique. Parties du discours autres que le Verbe. II Le Verbe* (H. Gavel, G. Lacombe) (*Gure Herria*, 1933 [maiatza-ekaina]-1936 [iraila-abendua].)
- GÉZE, L. (1873), *Éléments de grammaire basque*, Baiona (Donostia, 1979, Hordago-Lur [Euskal Klasikoak 27.])
- GOENAGA, P. (1980), *Gramatika bideetan*², Donostia, Erein.
- INCHAUPE, M. (1858), *Le verbe basque*, Bayonne, Paris, Veuve Lamoignon née Teulière, imprimeur, et Benjamin Duprat.
- ITHURRY, J. (1895), *Grammaire Basque. Dialecte Labourdin*. (= Hordago-Lur (Euskal Klasikoak 26)). Donostia, Ediciones Vascas, 1979 berrargitalpenetik aipatua.
- KNÖR, E. (1983), "Una traducción de Uriarte al vascuence alavés: La bula ineffabilis de 1864", *IKER*-2, Bilbo, Euskaltzaindia.
- LAFITTE, P. (1944), *Grammaire Basque (navarro-labourdin littéraire)*, (berrargitaratua, Donostia, Elkar, 1979.)
- LAFON, R. (1944), *Le système du verbe basque au XVI^e siècle* (2. argitaraldia, Zarautz, Elkar, 1980.)
- 1966, "La particules *bait-* en basque; ses emplois morphologiques et syntaxiques", *Bulletin de la Société de Paris*, 61, 217-248.
- LARRAMENDI, M. DE. (1729), *El imposible vencido. Arte de la lengua bascongada*, Berrargitalpen faksimila, Donostia, Hordago-Lur 1979, (Euskal Klasikoak 23).
- LHANDE, P. (1926-1938), *Dictionnaire Basque-Français*, Paris.
- MICHELENA, L. (1966), "Azkue lexicográfico" in Michelena, Caro Baroja eta Tovar (1966), *Don Resurrección María de Azkue lexicógrafo, folklorista y gramático*, Bilbao, Publicaciones de la Junta de Cultura de Vizcaya.
- 1987-1992 *Orotariko Euskal Hiztegia*, (Bilbao, Descle De Brouwer, Ediciones Mensajero)
- OYHARÇABAL, B. (1985), *Les relatives en basque*, Collection UA 1028, CNRS-Université Paris VII.
- 1986, "Erlatibakuntza: perpau erlatiboaren egitura: izen erlatibatuaren betakizuna haren barnean", in P. Goenaga ed., *Euskal Sintaxiaren Zenbait Arazo*, Argitarapen Zerbitzua-Euskal Herriko Unibertsitatea, 131-153.

- 1987, *Étude descriptive de constructions complexes en basque: propositions relatives, temporelles, conditionnelles et concessives*, Doktorego-tesia (CNRS, UA 04 1028, Paris VII).
- RJJK, DE R. (1972), *Studies in Basque Syntax: Relative Clauses*, MITen aurkeztutako Doktorego-tesia.
- SALABURU, P. (1980), *Baztango euskalkiaz (1)*, Bilbao, Deustuko Unibertsitateko Argitarazioak.
- SARASOLA, I. (1984-1995), *Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia*, Donostia, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala-Kutxa Fundazioa.
- SATRUSTEGUI, J.M. (1993), “Relectura de los textos vascos de espionaje del siglo XVI”, *FLV* 64, 443-475.
- SCHUCHARDT, H. (1923), *Primitiae Linguae Vasconum*. Einführung ins Baskische, Halle, Verlag von Max Niemeyer. A. Yrigarayren espainierazko itzulpena, Salamanca, C.S.I.C., 1947, (Tesis y estudios salmantinos-III.)
- VILLASANTE, L. (1979), *Sintaxis de la oración compuesta*², Oñati, Edit. Franciscana Aranzazu.
- , 1985, “Euskal anaforikoak”, in J.L. Melena (ed.), *Symbolae Ludovico Mitxelena Oblatae*, II, 971-980, Gasteiz, UPV-EHU.
- , 1988, *Euskararen auziaz*, Lizarra, Edit. Franciscana Aranzazu.

LABURPENA

Artikulu honetan, modu deskriptiboan, “zein...bait-/n” erlatiboaren literatura-tradizioa aztertu dugu. Artikuluak argi pixka bat egin nahi du hurrengo alderdiei buruz: 1) egitura honen literatura-tradizioa eta bilakabidea; 2) *zein* izenordain erlatiboaren deklinabidea; 3) erlatibo-mota honen menderagailuak; 4) osagaien ordena erlatibozko perpausean, eta perpaus nagusiaren eta erlatibozkoaren arteko hurrenkera; 5) *zein* izenordainaren eta aurrekariaren arteko distantzia-arazoak; 6) egitura honen balioari buruzko eztabaida (balio ez-murritzalea bakarrik?); 7) puntuazio-zeinuak; 8) egitura honen tokia gaurko euskaran.

RESUMEN

En este trabajo se hace un estudio descriptivo del uso de la construcción de relativo “zein (...) bait-/n...” a través de la tradición literaria vasca. El artículo trata de aportar algo de luz sobre las siguientes cuestiones: 1) tradición literaria y evolución de esta estructura en la lengua escrita; 2) declinación del pronombre relativo “zein”; 3) marcas de subordinación en el verbo; 4) orden de los constituyentes en la proposición de relativo, así como el orden de ésta con respecto a la oración principal; 5) problemas relativos a la distancia entre el pronombre relativo “zein” y su antecedente; 6) discusión sobre si esta estructura se debe utilizar exclusivamente para expresar oraciones relativas no-restrictivas; 7) signos de puntuación que acompañan a esta estructura; 8) lugar de esta estructura en el euskara actual.

RESUMÉ

Cet article est une étude descriptive de l'utilisation de la construction relative “zein (...) bait-/n” à travers la tradition littéraire basque. L'article vise à éclaircir les suivantes questions: 1) la tradition littéraire et l'évolution de cette construction dans la langue écrite; 2) la déclinaison de pronom relatif “zein”; 3) des marques de subordination dans le verbe; 4) l'ordre de facteurs dans la proposition relative et l'ordre de celle-ci par rapport à la proposition

principale; 5) les problèmes relatifs à la distance entre le pronom relatif “zein” et son antécédent; 6) la discussion sur l’utilisation de cette structure afin d’exprimer uniquement phrases relatives non restrictives; 7) la ponctuation à accompagner cette structure; 8) place de la structure dans le basque actuel.

ABSTRACT

This article presents a descriptive study of the use of the relative construction “zein (...) bait-/n...” through Basque literary tradition. The aim of the article is to shed some light on the following questions: 1) the literary tradition and evolution of this structure in written language; 2) declension of the relative pronoun “zein”; 3) marks of subordination in the verb; 4) order of the constituents in the proposition of the relative, as well as the order of this with regard to the main clause; 5) problems related to the distance between the relative pronoun “zein” and its antecedent; 6) discussion as to whether this structure should be used solely to express non-restrictive relative clauses; 7) punctuation marks that accompany this structure; 8) the place of this structure in modern Basque.